 19. Ilurdotz: *ník améts in dút* ere bai, hurrengo ikustaldi batean.  
 24. Arrieta: Ezker aldeko erantzuna bere kasa luzatu zuen berriemaileak: *áitu naiz amésketan... nere andregáya bertze mutiko atekin joan dela.*  
 31. Eaurta: Erantzun biak MCErenak dira.  
 35. Uztarrove: Eskuin aldeko zutaberako honako erantzunak ere bildu ziren: *arek ensueñatu dien eta árek ensoñátu dién.*

**335. GALDERA**

2. Altsasu: FGk eta JMek berdin-berdin eman zuten, intonazio eta guzti: *bakárrik dó.*  
 35. Uztarrove: Herri honetako gure datuetan 'bakarrik' hitza ez da behin ere agertzen.



Aria herriaren ikuspegia - KA2012

**Nº 334 YO HE SOÑADO, ÉL HA SOÑADO - J'AI RÊVÉ, IL A RÊVÉ - I DREAMT, HE DREAMT**  
**Nº 335 ESTÁ SOLO, ESTÁ SOLA - IL EST SEUL, ELLE EST SEULE - HE IS ALONE, SHE IS ALONE**

<b>1. Ziordia</b>	amézketa égon naiz	soñatu in dik	bakárrik dó(o)
<b>2. Altsasu</b>	amétsa ín dot	amésketan... amé(t)sa eín dau	bakárrik dó
<b>3. Bakaiku</b>	ámets eín diet	ámets eín dik	bákarrik do
<b>4. Dorrao</b>	ein dót amétsa	ein dó amétsa	ói dáu bakarrík; béra bakárrik dáu
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	ámes eín det	amés eín dau	bákarrík doó
<b>6. Arbizu</b>	amétsa e(g)ín dut	amétsa eín dik	bákarrik dáu
<b>7. Uharte-Arakil</b>	amétsa ín dut	amétsa in du	bákarrik dáo. bakárrik dáo. bakarrik dau
<b>8. Murgindueta</b>	améts ein dút	amésketan áittu de	bákarri taó
<b>9. Ihabar</b>	amétsa eín dut / amésketan ibílttu náiz	amétsa eín du, amétsa in du	bákarrik daó
<b>10. Madotz</b>	nek améts eín dot	amétsa eín do	bakárre taó. bakárrí taó
<b>11. Egiarreta</b>	ametsa ein du	ametsa ein du	bakarrik dao
<b>12. Urritzola</b>	amets in dut	améts in du	bakárrik daó. bakárrik dagó
<b>13. Larunbe</b>	amésketan egóndu náiz	amésketan pástu dú gáue	bakárrí táo
<b>14. Beorburu</b>	amétsa in dut	améts in dú	bakárrik dáo. bakárrik dágó
<b>15. Usi</b>	amésketan egón naiz	améts in du	bakárrí táo
<b>16. Ziaurritz</b>	améts in dut	améts in du	bakárrí táo. bakarri(k) táo
<b>17. Anotz</b>	ní amésketan egón náiz	amésketan egón da; améstu de	bakárrí táo
<b>18. Olaitz</b>		suéño in du	bakárrí dágó
<b>19. Ilurdotz</b>	gaur gábéan in dut amésketa	ádek amétsa in du	dágó bakarrik. bakárrik dágó
<b>20. Inbuluzketa</b>	amésketan egón naiz	amésketan egón da	bakárrik daó. daó bakárrik
<b>21. Urniza</b>	améts in dút	amés in dú	béra dágó bakárrik
<b>22. Aurizberri</b>	nik ametsa in dut	arek ametsa in du	bakarrik dago
<b>23. Espotz</b>			bakárrik deó
<b>24. Arrieta</b>	áitu naiz amésketan	amésketan áitu da	bakárrí(k) daó
<b>25. Azparren</b>			bakárrik dá. dá bakárrik
<b>26. Garralda</b>	amesketan egón niz	amesketan egón da	bakarri dao
<b>27. Aria</b>	amets ein dut	amets ein du	bakarri tago
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>	amets ein dut / amesketan eon niz	amets ein du / amesketan eon da	bakarrik dao
<b>29. Garaioa</b>	ameskéta éin dút	ameskéta ein dú	bakárrik dáo
<b>30. Abaurregaina</b>	ametsa ein dut	ametsa ein du	bakarrik da(g)o
<b>31. Eaurta</b>	améts izán xut	améts izán xu	dióxu bákarrik; dagó béra sólo
<b>32. Espartza</b>	améstu dut	améstu du	béra sólo dágó; úra dágó béra sólo
<b>33. Ezkaroze</b>	améts egín dut	soñátu du; améts egín du	dágó béra sólo
<b>34. Otsagi</b>	amets egín dut	amets egín du	bakarrik dago
<b>35. Uztarroze</b>	sóñatu diár	soñátu dién	dión béra sólo; úra dión béra sólo

### 336. GALDERA

1. Ziordia: Mendebaldetiko eragina darakusan *narrúgorrián* ere bai, baina Eguberrieta kopla baten testuinguruan soilik. Eskuin aldeko zutabeen paratu beharreko erantzuna dela eta, bestalde, ez genuen indefinituari egokituriko aditz-laguntzailea bildu.
2. Altsasu: Aurreneko erantzuna JMek eman da. Bigarenaren kasuan TGk *bilíxkorrian diá* eman zuen baina JMek *bilíxkorrian dé*, koadroetan islatzeko hobetsi duguna. Berriemaile honixe, gainera, ázkura 'picor' bildu genion.
5. Etxarri-Aranatz: *bilískorríkó* hitza eman zigun halaber AEk.
9. Ihabar: Erantzun biak MHk eman zituen zera zehaztuz: *biluxiik, desnudo* (kasu honetan *I-a* ez zuen busti) eta *lárrugorrién, en cueros*.
13. Larunbe: Ezker aldeko erantzunak –biak laguntzaz eskuratuak– jaso aurretik, *bestítu gábe dáo* eman zigun berriemaileak. Erantzunok, dena dela, egokiak direla esan zuen. Eskuin aldekoa, gainera, berez eman zuen.
18. Olaitz: *eztákit nola errán* esan zuen informatzaileak, guk eginiko galdera ezin erantzun zezakeela ikusiz.
21. Urniza: *urtútsik dagó, está descalzo* gaineratu zuen informatzaileak.
23. Espotz: *urtúxik?* galdegin zion aurrenik berriemaileak bere buruari. Hori, baina, inguru horietan gazi. 'descalzo/a' da, jakina denez.
24. Arrieta: *bulúzik dagó, bulúzik daudé... bátre trésnaik gabe* esan zuen informatzaileak, non *tresna* hitza gaztelaniazko 'ropa' den.
31. Eaurta: Ezker aldeko erantzuna CS-ek eman zuen; eskuin aldekoa MCEk.

#### EAEL-EN ARGITARATUAK:

(aldi honetan eskatu ziren bietatik bigarrena)

Urdiain: *pilíxkorrien do /Lizarraga: billutsik dago /Etxarri-Aranatz: bilískorriye do /Irañeta: bilíxkorrien dau /Alli: larru gorrian dago /Gartzaron: larru gorriik dago /Autza: biluxik dago /Ziganda: bilútsik taó /Eugi: biluxi dago /Mezkiritz: bulutsik dago /Auritz: biluzirkik dago (buluzik eta buluxik ere bai) /Iraberri-Artzibar: buluzik dago.*

### 337. GALDERA

2. Altsasu: Erantzun biak FGrenak dira.
5. Etxarri-Aranatz: Inguru honetan hain ohikoa ez den *ja ere* esamoldea erabili zuen, behin bederen, AEk, zera galdetu genionean: Zuek ikasi zenuten, umetan, dotrina euskaraz? - *Bai, nik erabát, érdeas ézta já're!*
15. Usi: Eskuin aldeko erantzuna bildu ez baguenen ere, ekialderanzko norabidean aski ohikoa den 'ja ere (ez)' aditu diogu berriemaile honi: *biño órai éztu(t) zautzén já ere, já éztu(t) zautzen!*
16. Ziaurritz: Hona halako batean bildua: *énaiz gáuze yáusteko!*
17. Anotz: Lehenxeago aipatu 'ja ere (ez)' bildurik gaude herri honetan ere: *bidé artán eztún agái (= 'ageri')... bidí artán, eztún agái já ere, íduri in dín lézia.* Amak esan omen zion behin hori, aspaldiko denboretan.
18. Olaitz: *dáus ez* moduko esamoldea bildu genion halaber berriemaileari, beste une batean.
19. Ilurdotz: Oraindian honako esaldia bildu genuen: *Ik in duk lan gau.*
25. Azparren: ABri *kilimólí* hitza bildu genion esaldi jakin batean txertaturik: *estáte, estáte ahí kilimólí* ('sin hacer nada, desperdiando el tiempo', omen).
29. Garaioa: Litekeena da *éztu dáus eín izatea.*
33. Ezkaroze: *bátre 'nada' ere bai: bátre! kén bátre, eztúgu izáun.*
35. Uztaroze: Inoiz asimilazioa darakusan esaldiren bat ere bildu dugu: *Egún guniá... bordàltakó... mezá, berrògeitamár(s)... úrte.*  
- Egun? - *Ez! egín guniá, Sàntiago égunian.*

#### EAEL-EN ARGITARATUAK:

(aldi honetan eskatu ziren bietatik bigarrena)

Urdiain: *zerbait in dau, eztau in ezt'ezer e /Lizarraga: zerbait egin du, ez du ezer egin /Etxarri-Aranatz: ---, eztau ezer ein /Irañeta: zerbait in du, eztu deus in /Alli: zerbait egin du, ezer ez du egin /Gartzaron: zerpait in du, ez du deus in /Autza: zerbeit egin du, ez du yaus ere egin /Ziganda: zebáit in du, éztu ín déus eré /Eugi: in du zerbait, ez du in ja ere /Mezkiritz: in du zerbait, eztu deus ere in eta eztu ja ere in /Auritz: zerbait ein du, ez du deus in eta deusik ez du in /Iraberri-Artzibar: zerbait in (men)du, deus ez du in.*

**Nº 336 ESTÁ DESNUDO, ESTÁN DESNUDOS - IL EST NU, ILS SONT NUS - HE IS NAKED, THEY ARE NAKED**

**Nº 337 HA HECHO ALGO, NO HA HECHO NADA - IL FAIT QUELQUE CHOSE, IL NE FAIT RIEN - HE DOES SOMETHING, HE DOES NOTHING**

1. Ziordia	bilíxkorrian dó(o)	bilíxkorrian jek	zerbait in dik	eztik in ézer é
2. Altsasu	bilíxkorrian dó	bilíxkorrian dé	zérbáit eín dau	eztáu ezér egín
3. Bakaiku	bíxkorrik, birixkórrik do	bixkórrien de	zérbeit eín du	éztu eín ezérr e
4. Dorrao	ói dáu bilixik	éراك dói bilixik	ein dó zerbéitt	eztó ezér ein
5. Etxarri-Aranatz	lárrugórriyén doó	lárrugórriyén deé	eín dau zerbait	éztau ézer ein
6. Arbizu	bilútsik dáu; lárrugorriyan dáu	lárrugorriyán daudé	zérbait eín dik	ézer éztik eín
7. Uharte-Arakil	bilíxik daó	bílrixik dué; bílrixik daudé	zérpeitt ín du	éztu déus ín
8. Murgindueta	lárrugorrién daó	lárrugorrién dué	zérbatt in dú	èztu dáus (e)in
9. Ihabar	òri daó billuxík	óiek dué lárrugorrién	zérbaitté ín du	eztu in bátere
10. Madotz	larrúgorrín daó	lárrugórrin dáe	zérbaitt eín do	éztu eín déus e
11. Egaiarreta	larrúgorrín dao	larrúgorrín daudé	zerpaitt ein du; in du zerpaitt	deus e eztu ein; eztu in deus
12. Urritzola	bulúxirik daó	bulúxirik dáure	zerbait in du	éztu dáus egín
13. Larunbe	larrúgorriétan dágó*; bilúxik dágó*	oyék... biluxi táude	béak zérbaitt in dú	éztu dáus ín
14. Beorburu	bilútsik dáo	bilíxik dáude	zérbáit ín du	éztu bát(e)re ín
15. Usi	bilúxi tágo		in du zerbait(t)	
16. Ziaurritz	larrúgorrién dao	larrugorrién dáude	zerbait in du	yaus eztu in
17. Anotz	bilúxi táo	bilúxi táude	zérbáit ín du	eztu in dáus eré
18. Olaitz			in du píxket	eztu ein já ere
19. Ilurdotz	úre dágó bulúziik	daudé bulúzik	árrek in du zerbait	éztu in jái ere, bátre
20. Inbuluzketa	bulúxi táo	bulúxi taúde	zérbait in du	eztuté ja in (?)
21. Urniza	bulúsik dagó	bulúsik daudé	zérbáit in du	éztu ín déus
22. Aurizberri	buluxik dago	buluxik daude	zerbait in du	deus ere eztu in
23. Espotz		bilúxik* deó	ín du zenbáit gáuza	éztu ín já ere
24. Arrieta	bulúzik dagó	bulúzik daudé	zérbáit in du	éztu ín dáus
25. Azparren	dá bilútsi		ín dú... zerbáit*	éztu in já ere
26. Garralda	bulusik dao	bulusik daude	zerbeit ein du	eztu daus ein; eztu ja ein
27. Aria	biluzi tago	biluzi taude	zerbeit ein du	eztu daus ein
28. Hiriberri-Aezkoa	buluzirik dao	buluzirik doude	zerbeit ein du	eztu ja ein
29. Garaioa	bulutsírik dáo	biluxírik dáude	zérbeit eín du	éztu dáus e eín
30. Abaurregaina	bulusirik dao	bulusirik daude	ein du zerbait	eztu daus ein
31. Eaurta	áurra dióxu bulústrik	bulúxirik diaudétxu	kórrek zerbait egín xu	éztu egín déus e
32. Espartza	bulúsirik dágó	bulúxirik dáude	egín du zerbait	eztík egín déus ere
33. Ezkaroze	bulúxirik dagó	bulúxirik daudé	egín du zerbait	ez du egín deus eré
34. Otsagi	buluxirik dago	buluxirik daude	zerbait egín du	eztu egín deus e
35. Uztaroze	dión beláinzurik	daudén beláinzurik	égin dién zerbáit	eztién égin déus ere

### 338. GALDERA

1. Ziordia: Gure laguntza eman aurretiko erantzuna *béak dakik* izan zen.
2. Altsasu: Ezker aldeko erantzuna eta eskuin aldeko zukako erak FGri zor zaizkio. JMi zor zaio eskuin aldeko tokako era eta baita, ezker alderako, elkarritzeta libreaten bildu genion *báakí* bat ere.
3. Bakaiku: Eskuin aldeko zutabea dela eta, PAK dioenez, tokaroko *badakik / badekik* ere izan daiteke eta, nokarako, *badakin*.
4. Dorrao: Ezker aldeko zutabea dugun aditz trinkoari egokituriko alokutiboa –*baakik / baakin*– egokiak dira, eskuin aldekoan ageri diren 2. pertsonako hikako era zuzenekoekin, errealtitatean, ia bat egin arren.
9. Ihabar: Ali *arrék dakí / zuk dakizú* asko moduko erantzun-pare egokia bildu genion arren, MH ere galdekatu genuen informazio gehiagorria eskuratu nahian. Hona erantzunak: 1) *bádakí > bázakik / bázakín*; eta 2) *ik e bádakik / bádakín*, hiketan.
10. Madotz: Ezker aldeko erantzunak direla eta, *béa také* moduko aldaera jaso genuen halaber, koadroetan sartu ez izanaren arrazoia lekuaren eskasa izaki.
15. Usi: *bádaki* ere bildurik gaude hizketaldi askean.
16. Ziaurrizt: Lehen kasurako, *orrekk bádakí* bildu genuen beste une batean.
17. Anotz: *yakín du* ere bai, 'hark' jakina.
18. Olaitz: Singularreko bigarren pertsonareriko erantzuna lagundurik eman bazuen ere, lehen pertsonan *bádakít* eta *éztakít* moduko erak bildu genizkion berriemaileari.
21. Urniza: Hizketaldian era honetan ere bai: *bakízu, zük badakízu*.
24. Arrieta: *mundúko kóntu guziak badáki orrék* gaineratu zuen berriemaileak, aditzaren era trinkoa pluralizatu gabe.
25. Azparren: Berriemaileak 'él sabe' galderari erantzun ez bazion ere, 'daki' gisako era ekarri dugu koadroetara, une desberdinatan hala *eztákít* nola *éztákik* moduko erak erabili zituelako.
30. Aburregaina: Hona zehaztasunak eskuin aldeko zutabea dela: 1) 'mutila bada'; eta 2) 'neska bada'.
32. Esparta: Aditz soltea aurreko *ba-* gabe, noski: *nexkáto kórrek dakí ánitz, adibidez, eta alokutiboa –xukakoa kasu honetan– berriemailei elkarritzeta askean* bildu esaldi honetatik bildu dugu: *Luirek ere badiakixu, áski óngi*.
33. Ezkaroze: Berriemaileak berak ere galdetu zuen, xukako tratamendua erabiliz: *xuk bádakíxua?* Hikako era, bestalde, berriemailearen adiskide SNI zor zaio.
35. Uztarroe: Aquilina Ederra izeneko herrikideak behin gure aurrean zer esan zion gogora ekariz, honela mintzatu zitzagun berriemailea: *Bai, bai, kóri errán zia, bai; errán ziá níri ere: yík badakín óbro ezi ník, elerráitan*.

### 339. GALDERA

2. Altsasu: JMek *ikési íten dau / ikési ín dau* eman zuen; FGk, bigarren kasurako, *ikás dau*.
9. Ihabar: Ali eskuin aldeko *ikásí du* bildu genion; gainerako guztia MHri.
18. Olaitz: Berriemailea mintzo: *ikési tugú, an, eskolan, itxan ondoán*.
19. Ilurdotz: Erantzuleak *ikéstun du* eman zuen halaber; asimilazioa ote? ez dugu uste, lehenago ere (261. galderari eginiko oharrean hain juxtu) *itzul duzu* (eta *ez itzel*) aipatu dugun arren. Izan ere, hori, ezeri zor bazaio, balizko asimilazio bat baino gehiago gure berriemaile gogotsuaren mintzatzeko eraren ahuleziari zor baitakioke, geure uste apalean.
21. Urniza: Lehenago ere, 326. galderaren kasuan ikusi bezala, galdera modu desberdinatan egin genuen, erantzunak honakoak izan zirela: 1) *bérak ikéstén du*; 2) *órrek ikéstén du*; eta 3) *maztéki orrék ikéstén du*.

**Nº 338 ÉL SABE, TÚ SABES - IL SAIT, TU SAIS - HE KNOWS, YOU KNOW****Nº 339 APRENDE, HA APRENDIDO - IL APPREND, IL A APPRIS - HE LEARNS, HE LEARNT**

<b>1. Ziordia</b>	béak dakí*	ik bádakik	ikasi iten do; ikasi iten dik	ikas dik
<b>2. Altsasu</b>	áitak báki	badákizú. bákitzú (ik bakik)	ikési iten dau	ikési ín dau; ikás dau
<b>3. Bakaiku</b>	bádakí	bádakezú (badakik)	ikásten dik	ikás du
<b>4. Dorrao</b>	órrek baakí > baakik / -n	bákitzú (bakik/n)	eitten dó ikési	ein dó ikési
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	beák baakí > bazikik / -n	bákitzú (baakik/n)	ikési eitten dau	ikési eín dau; ikés dáu
<b>6. Arbizu</b>	báakí > bazakik / -n	bádakizú (badakik/n)	ikési eitten dik; ikásten dik	ikési ik
<b>7. Uharte-Arakil</b>	bérak báakí > bazakik / -n	bákitzú (baakik/n)	ikásten du	ikés du
<b>8. Murgindueta</b>	órrek bá(d)akí	zük bádakizú	ikéstén dú	ikés dú
<b>9. Ihabar</b>	arrék dakí > zakik / -n	zuk dakizú (badakik/n)	ikéstén dú ásko	ikés du. ikásí du
<b>10. Madotz</b>	béak daké > zakek / -n	zük dakezú. zo takezú (ik dakek/n)	ikáse eitten do	ikásí o
<b>11. Egiarreta</b>	beak badaki	zu badakizu, zú dakizú	ikasten du	ikasi du
<b>12. Urritzola</b>	beák bádakí	zuk dakizú (dakin)	ikéstén du	ikési du
<b>13. Larunbe</b>	béak bádakí	zük bádakizú	ikéstén du	ikési dú
<b>14. Beorburu</b>	órrek bádakí > bazakik / -ñ	zük dakizú (badakik/n)	ikéstén du	ikési du
<b>15. Usi</b>	béra takí	badákizú. bákitzú	ikéstén du	
<b>16. Ziaurritz</b>	béa takí	badakizú. bakizú (ik badakik)	ikéstén du	ikési du
<b>17. Anotz</b>	bérak dakí	zük dakizú. bádakizú (bádakik)	ikéstén du	ikési du
<b>18. Olaitz</b>	badaki	bádakizu. bákitzú	ikéstén du	ikési du
<b>19. Ilurdotz</b>	árrek bádakí > bazakik*	zük bádakizú (ik bádakik)	ikéstén du	ikési du
<b>20. Inbuluzketa</b>	béra takí	zuk badakizú. bakizú	ikéstén du	ikési du
<b>21. Urniza</b>	béak dakí	zuk dakizú (ik dakik)	ikéstén du	ikési du
<b>22. Aurizberri</b>	arrek badaki	zuk badakizu	ikasten du	ikasi du
<b>23. Espotz</b>	órrék bádakí	zük badakizu		órrék ikásí dú
<b>24. Arrieta</b>	órrek bádakí	zük bádakizú	ikásten du	ikásí du
<b>25. Azparren</b>	daki	dakizú		ikásí* du. ekásí dú
<b>26. Garralda</b>	badaki	badakizu (badakik/n)	ikasten du; ikasten ai da	ikasi du
<b>27. Aria</b>	badaki	badakizu (badakik)	ikasten du	ikasi du
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>	berak daki > xakik / -n	zuk dakizu; xuk dakixu (ik dakik/n)	ikastén du > ikasteik / ikastein	ikasi du > ikasik / ikasin
<b>29. Garaioa</b>	bérak bádakí > baxakik / -n	zük bádakizu (ik badakik/n)	ikásten dú	ikásí dú
<b>30. Abaurregaina</b>	arek daki	ik badakik, badakin	ei da ikasten	ikasi du
<b>31. Eaurta</b>	bádakí	ik bádakik	ikásten xu	kórrek ikásí dú óngi
<b>32. Espartza</b>	árek badakí > badiakixu	ik badakik. dákik/n	ikásten du	ikásí du
<b>33. Ezkaroze</b>	bérak bádakí	xuk bádakixú (badákin)	ikásten du	ikasi du
<b>34. Otsagi</b>	karek badaki	ik badakik	ikasten du	ikasi du
<b>35. Uztaroze</b>	badaki > badakién	badakizu (badakin)	ikástan dién	ikasi dién ánitx

**340. GALDERA**

2. Altsasu: JMek kontátu iten dau / kontátu dáu eman zuen; FGk, bigarren kasurako, óndo esán dau.
5. Etxarri-Aranatz: Alokatiboak ere eman zizkigun AEk: zittuk eta zittún.
9. Ihabar: Ezker aldeko galdera, hutsegite bat tarteko, egin gabe geratu ginen; 'ha contado' kasurako, berriz, koadroetara ekarri dugun erantzuna MHri zor zaio, baina Alek ere kontatu du eman zuen.
35. Uztarrove: Berriemaileak, hasieran, gaizki ulertu zuen, zera esan baitzuen: 'ha cortado'? ebáki dién.

**341. GALDERA**

1. Ziordia: pátu óri gaineratu zuen informatzaileak erantzunak eman ostean (*patu* = 'paratu', antza).
2. Altsasu: JMek zük eskribitzen dezú / zük eskribitu dezú, eskribitu zú eman zuen; FGk, bigarren kasurako, zük eskribitu duzú.
6. Arbizu: Informatzaileak aldi honetan eiten esan zuen bere ohituraren aurka, t-a busti gabe.
9. Ihabar: Erantzun biak MHri zor zaizkio.
10. Madotz: Eskuin alderako zukako erantzuna bildu genuen, halaber: zók eskribitto ézo edota, gauza bera dena, zók eskribitto ozó.
14. Beorburu: Ezker aldeko erantzuna dela eta, zük eskribitzáuzu moduko era laburtua bildu genuen gisa borean.
19. Ilurdotz: Eskuin aldeko erantzuna era honetan bildu genuen: zük in duzu kárta bat zure anáyai igorríteko.
21. Urniza: Eskuin aldeko zutabean idatzi dugun eskriúti hori horrela bildu genuen, bokalarteko baren erorketaren ondorio, antza.
24. Arrieta: Erantzunen haritik honako hau gaineratu zuen berriemaileak: *badakizú eskribitzen? itén al duzú!*...
26. Garralda: Ezker aldeko bigarren erantzuna dela eta, zera idatzi zuen biltzaileak, berriemaileak esanikoa islatuz: *eskribitzen ai iz (berdin gizona edo emaztekia)*.
28. Hiriberri-Aezkoa: Berriemaileak eskritzén duxu / eskrituxu moduko erantzunak ere eman zituen, ibar honetako xukako tratamendua erabiliz. Jakina da, edozein kasutan, tratamendu honek ez dituela era alokatiboak sorrazaten Aezkoan, indefinituko tratamendua-ren (ohiki 'zukakoa' deitua) aldaera txiki bat baizik ez baita, zenbait lagunekin goxoago-edo mintzatzeko erabilia.
32. Esparza: Eta galdezko: *ik eskribitzen ká? ik eskribitu ká?* aditz-laguntzailea -a galdetzailea erantsi eta, ondoren, emaitzaren lehen silaba galdurik.
35. Uztarrove: Ezker aldeko zutaberako yík eskribitan dún yire aizpári bildu zen eta, horretatik at, baita honako esaldi laburrak ere: *eskribitan duná? / eskribitu duná? / eskribízan / árek eskribitu dién periódikoan*.

Villanueva 11 Enero 1982

Jr. K. Artola

Muy Sr. mio y amigo: Recibi tu carta hace unos días, junto con la felicitación, gracias. Yo también agradezco mas tarde recibida; te deseo un feliz y prospero Año Nuevo para ti y todos tus familiares lo mismo. Este chuscará bearbeada erantzun comprendo ongi, eraitut esribichen ongi tanto pienso que comprenderás, porque esta escrito limpia con la pronunciación figurada.

Ficas todas estas fiestas pasando muy alegre, como corresponden ha este tiempo, que siempre por lo general se suelen ser alegres; contatugatz arren dieren; MorcorraK, ahundiak, deboraK er laundudigne mucho, porque mejor tiempo no ha pedido hacer.

Ambrosio Usoz Artibarko hiribertarrak idatziriko gutuna.

Ahora esperaremos a la primavera a ver que cariz atmosférico nos trae, o hay que temer que nos de malo porque a veces llueve, y siempre así no puedo.

Bueno ahisquidea cadaquiu dembora onchendelaitz primavera aldihan, seguiríes dar alguna vuelta por aquí, que emendar algo querrá, enta nure compañiek beti sines es muy agradable, y en primavera mas por el buen tiempo dora gusto es salir a tomar el sol y el viento.

(Fin más) que decirte por este dia recito el más cordial salude de toda esta familia; para ti y familia y todos los tuyos deseandole lo mejor en este 1982 para todos se despide tu amigo.

Ambrosio Usoz, y tanto años

- Nº 340 RELATA, HA RELATADO o CUENTA, HA CONTADO - IL RÉCITE, IL A RÉCITÉ ou IL RACONTE, IL A RACONTÉ - HE RECITES, HE RECITED or HE RELATED, HE RELATED**
- Nº 341 ESBRIES, HAS ESCRITO - TU ÉCRIS, TU AS ÉCRIT - YOU WRITE, YOU WROTE**

<b>1. Ziordia</b>	kontátzen dik	béak kontátu dik	eskríbitu íten dok	ik eskribitu dok
<b>2. Altsasu</b>	kontátu íten dau	kontátu dâu; óndo esán dau	zük eskríbitzen dezú	eskríbitu dezú. zú. duzú
<b>3. Bakaiku</b>	kontátzen du óndo	óndo kóntatu dû kóntuá	eskríbitzen dek	eskríbitu dek
<b>4. Dorrao</b>	eitten dó kontátu	kóntatu ó kóntu bét	eitten dezú eskribíttu	ein dézu eskribíttu
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	kóntatze ittú, gáuzek	kóntatu au; kóntatu ittú	eskríbittu eitten dezú	eskríbittu ezú
<b>6. Arbizu</b>	kontátzen dik	kontátu eín dik	eskríbittu eíten duk	eskríbittu eín duk
<b>7. Uharte-Arakil</b>	kontátzen du	kóntatu dû	eskríbitzen dézu	eskríbittu dezú; eskribíttu uk
<b>8. Murgindueta</b>	kóntatzen dû	kóntatu dû	eskríbitzen duzú	eskribíttu zú. eskribitu zú
<b>9. Ihabar</b>		kontátu dû kóntu et	eskríbitzen duzú ásko	eskríbittu duzù
<b>10. Madotz</b>	kontátzen du	kontáto o	eskríbitzen dok	eskríbitto ok
<b>11. Egiarreta</b>	kontatzen du	kontatu du	eskribitzen ai za; zú ai zá eskribizén	eskribitu duzu
<b>12. Urritzola</b>	kontátzen du	kontátu du	eskríbitzen duzu	éskribitu duzú
<b>13. Larunbe</b>	kóntatzen du	kontátu dû	eskríbitzen dúzu	eskríbittu zú
<b>14. Beorburu</b>	kontátzen du	kontátu dû	eskribitzen dúzu. eskribitzáuzu	eskríbitu zú
<b>15. Usi</b>	kontátzen du		eskríbitzaúzu	
<b>16. Ziaurritz</b>	erráten du	errán du	eskríbitzauzu	eskríbitu zu
<b>17. Anotz</b>	kontátzen du	errán du kontúe	zük eskríbitzen duzú	eskribitu duzú
<b>18. Olaitz</b>		kontúe errán du		eskríbittu zu
<b>19. Ilurdotz</b>	kontátzen du kóntu bet	kontátu du bére bizie	ítén duzú kárta bat	in dúzu kárta bat
<b>20. Inbuluzketa</b>	kontátzen tu	errán du	eskríbitzeuzú	eskríbitu zu
<b>21. Urniza</b>	kontátzen dû	kontátu dû	eskríbitzen dük	eskriitu zú
<b>22. Aurizberri</b>	kontatzen du	kontatu du	eskribitzen duzu	eskribitu duzu
<b>23. Espotz</b>		errán du		zük ezkríbitu zú
<b>24. Arrieta</b>	kóntu kontátzen áitzen da	kontátu du	ik eskríbitzen duk	eskríbitu zú
<b>25. Azparren</b>		kontátu du		
<b>26. Garralda</b>	kontatzen du; kontatzen ai da	kontatu du	eskribitzen duzu; eskribitzen ai zira	eskribitu duzu
<b>27. Aria</b>	erraten du	erran du	eskribitzen duk	eskribitu duk
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>	kontatzén du > kontatzeik / kontatzein	kontatú du > kontatuik / kontatuin	eskritzén duzu > eskritzou / eskritzoun	eskrito zu
<b>29. Garaioa</b>	erráten du	errán du	eskríbitzen dúzu	eskríbitu dúzu
<b>30. Abaurregaina</b>	ei da kontatzen	kontatu du	eskribitzen ei xira	eskribitu duxu
<b>31. Eaurta</b>	kontátzen dû kóntu	errán dû kóntu bat	ik eskríbitzen duk	ik eskríbitu duk
<b>32. Espartza</b>	kontátzen du	kontátu du	eskríbitzen duk	eskríbitu duk
<b>33. Ezkaroze</b>	kontátzen du	kontatu du	xuk eskríbitzen txu	xuk eskríbitu xu
<b>34. Otsagi</b>	kontatzen du	kontatu du	ik eskríbitzen duk	ik eskríbitu duk
<b>35. Uztaroze</b>	kóntatan dién kuénto bat	kóntatu dién	eskríbitan dún	eskríbitu dun

**342. GALDERA**

1. Ziordia: Erantzuleak hikako alokutiboa erabili zuen eta gauza bera egin zuten, galdera honi gagozkiola, Azbizuko, Hiriberri-Aezkoako (neurri batean) eta Uztarrozeko erantzuleek ere.
2. Altsasu: Aurrenoko erantzuna JMek emana da; bigarrena FGri zor zaio.
9. Ihabar: Ali eskuin aldeko *léittu ut* bildu genion; gainerako guztia MHri.
18. Olaitz: *léitut zérbaït, denbóra pastéko...* esan zuen berriemaileak.
31. Eaurta: CS-ek era laburtuak erabili zituen; lehenengo erantzunean 'dixut'ena (xukako alokutiboa), eta bigarrenean 'dizut'ena (zu-kako alokutiboa).
35. Uztaroze: *lea zan! 'lee'* ere bai.



Apat etxeiko garaia, Arian - KA2012

**Nº 342 LEO, HE LEÍDO - JE LIS, J'AI LU - I READ, I READ**

<b>1. Ziordia</b>	nik léitu íten diat	léitu in diat
<b>2. Altsasu</b>	leítzen dot	leítu ót
<b>3. Bakaiku</b>	léitzen dút	léittu dút
<b>4. Dorrao</b>	eitten dót léittu	ein dot léittu
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	léittu eítten det	leíttu eín det
<b>6. Arbizu</b>	leíttu eítten diét	leíttu eín diét
<b>7. Uharte-Arakil</b>	leítzen dut	leíttu in dút
<b>8. Murgindueta</b>	léitzen dút	léittu út
<b>9. Ihabar</b>	leítzen dut	leíttu dut. léittu ut
<b>10. Madotz</b>	leítzen dot	leítto ot
<b>11. Egiarreta</b>	leitzen ai naiz	leitu dut
<b>12. Urritzola</b>	léitzen dut	léittu dut
<b>13. Larunbe</b>	leítzen dut	leíttu dút
<b>14. Beorburu</b>	leítzen dut	léitu dut
<b>15. Usi</b>	léitzeaut	
<b>16. Ziaurritz</b>	léitzaut	léitu ut
<b>17. Anotz</b>	leítzen dut	léitu dut
<b>18. Olaitz</b>		léitut. léitu dut
<b>19. Ilurdotz</b>	leítzen dut	léitu dut
<b>20. Inbuluzketa</b>	leítzeut	léitu út. leítut
<b>21. Urniza</b>	léitzen dut	leítu dút
<b>22. Aurizberri</b>	leitzen dut	leitu dut
<b>23. Espotz</b>		léitu* dut
<b>24. Arrieta</b>	leítzen dut	léitu ut
<b>25. Azparren</b>		
<b>26. Garralda</b>	leitzen dut; leitzen ai niz	leit ut
<b>27. Aria</b>	leitzen dut	leitu dut
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>	leitzout > leitzén diat / dinat	leitú dut
<b>29. Garaioa</b>	léitzen dút	léitu dút
<b>30. Abaurregaina</b>	leitzen ei niz	leitu dut
<b>31. Eaurta</b>	ník leítzen xut áski	ník léitu zut
<b>32. Espartza</b>	leítzen dut	leítu dut
<b>33. Ezkaroze</b>	leitzen dut	leítu dut
<b>34. Otsagi</b>	leitzen dut	leitu dut
<b>35. Uztarroze</b>	léatan diár	léatu diár

**343. GALDERA**

1. Ziordia: FGk eta JMek erantzun bera eman zuten.
17. Anotz: - Eta 'osaba'? galduen genuen. - *Ya he oído* izan zen erantzuna.

**345. GALDERA**

1. Ziordia: Oso litekeena da laguntzaz eskuraturiko erantzuna egokia ez izatea, Altsasun zein Olaztin, bietan, izéko bildu baikenuen.
2. Altsasu: FGk eta JMek erantzun bera eman zuten.
8. Murgindueta: Galduen genuen: Eta izeba? - *Eztaít izéba den, tío y ta tía, sàten dút; izebá... izènko dá prima...* izan zen erantzuna.
9. Ihabar: *izéba* MHk eman zigun, Al hitz honetaz oroituz zenez.
17. Anotz: - Eta 'izeba'? galduen genuen. - *Ya he oido* izan zen erantzuna.
19. Ilurdotz: *nére tie* esan zuen berriemaileak.
25. Azparren: *gúre tía* gaineratu zuen erantzuleak.

**347. GALDERA**

1. Ziordia: Herri honetatik hurbil, Olaztin, *gizoná* eta *senárra* bildu genuen, Altsasun bezala.
2. Altsasu: FGk *gizóna* eman zuen eta JMek *sénarrá*. Honek, halaber, arraro iruditzen zaigun *sénarr-ametzák* (= 'senar-emazteak') gaineratu zuen.
20. Inbuluzketa: *senárramáztia* eman ziguten, bide batez.
31. Eaurta: Mugagabeko era CS-ek eman zuen; mugatua MCEk.
35. Uztarrove: *ene gizona* esan zuen berriemaileak; norberaren senarra den kasuan erabilgarria, antza.

**348. GALDERA**

1. Ziordia: *andrí* FGk eman zuen; JMi *ández* zein *andréá* bildu genion.
17. Anotz: *maztékie* 'mujer', esan zuen berriemaileak.
18. Olaitz: *txokándria* eta *itxéko andréa* gisako aldaerak ere bildu genituen, eta baita *espósa* hitza ere. Hona adibideak: 1) *Txo-kándria, aúrre bát iñeskerós, bi áurre;* eta 2) *Sinforosa, neskátxa hermósa, zú al bázakezú nére espósa!*
24. Arrieta: *andregáya* 'la novia' ere bai.
26. Garralda: *etxeoandrea* 'la dueña' (lit. 'la señora de la casa') ere bai.
32. Espartza: *etsékoandriá* ere bai.
35. Uztarrove: *mázte* hitza berdin zerabilen berriemaileak gaztelaniazko 'esposa' zein 'mujer' izendatzeko eta, horrez gainera, *e(t)sokándria* ere bildu genuen, gorago aipatu esanahiaz.

**Nº 343 TÍO - ONCLE - UNCLE****Nº 345 TÍA - TANTE - AUNT****Nº 347 ESPOSO - ÉPOUX - HUSBAND****Nº 348 ESPOSA - ÉPOUSE - WIFE**

<b>1. Ziordia</b>	osaba	izéba*	marídoa	andría
<b>2. Altsasu</b>	osába	izéko	gizóna; sénarrá	andri. ándrea. andreá
<b>3. Bakaiku</b>	ósabá	ízebá	née gizóna	andría
<b>4. Dorrao</b>	òsabá	izuá	gizoná	an(d)riá
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	ósába	izéba	gízoná	andriä
<b>6. Arbizu</b>	osába	izéba	née gizóna	née andría
<b>7. Uharte-Arakil</b>	ósabá	ízebá	sénarrá	emáztié
<b>8. Murgindueta</b>	osába; tío	tía	senarra	máztia; andría
<b>9. Ihabar</b>	osába	izéba	senárra	ándrea
<b>10. Madotz</b>	ósabá	ízoá	sénarrá	emazteé
<b>11. Egiarreta</b>	osaba	izoa	senarra	emaztea; andrea
<b>12. Urritzola</b>	osaba	izéba	senárra	emáztia; andréa. andría
<b>13. Larunbe</b>	osába	izéba	senárra	andría
<b>14. Beorburu</b>	osába	izéba	senárra	ándrea. andría; emáztea
<b>15. Usi</b>	osába	izéba	senárra	andría. ándria
<b>16. Ziaurritz</b>	osába	izéba	senárra	andría, andre bat
<b>17. Anotz</b>	tío	tía	senárra	andría
<b>18. Olaitz</b>	osaba		senárra	máztia; etxekoándrea
<b>19. Ilurdotz</b>	tíoa; osaba?	tíe	senárra	ándrea
<b>20. Inbuluzketa</b>	osába	tíe	senárra	andría
<b>21. Urniza</b>	osába		senárra	andría; emáztea
<b>22. Aurizberri</b>	osaba	tia	senarra	emaztea
<b>23. Espotz</b>	tíoa	tía	senárra	andréa
<b>24. Arrieta</b>	osába	iséba	senárra	ándrea, ándre; máztea, mázte
<b>25. Azparren</b>	tío	tía	senárra*	maztékia
<b>26. Garralda</b>	osaba	izeba	senarra, senar	emaztea, emazte
<b>27. Aria</b>	tio	tia	senarra	andrea, andre
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>	tio	tia	senarra	emaztea
<b>29. Garaioa</b>	osába*	izéba*	senárra	emáztea
<b>30. Abaurregaina</b>	tio	tia	senarra, senar	andrea
<b>31. Eaurta</b>	tío	tía	senárra, senár	emáztia
<b>32. Espartza</b>	tio	tia	senárra, senár	emáztia, emázte
<b>33. Ezkaroze</b>	tío	tía	senárra. sénarrá	emáztea
<b>34. Otsagi</b>	tio	tia	senarra, senar	emaztëa, emazte
<b>35. Uztarroze</b>	tío	tiá	senárra. senarrá	máztia, mázte

**349. GALDERA**

2. Altsasu: Lehenengo hitza FGri zor zaio eta jarraiko aldaera JMi.
9. Ihabar: Erantzuna MHk eman zuen, lagundua izanik, baina.
17. Anotz: Guk galdeginik, informatzaileak zera erantzun zuen: *aitéarréba ya he oído decir... pero no sé más.*
19. Ilurdotz: Balizko 'aitagiarreba' batez galdetu genionean, berriemaileak zera esan zuen: *me parece que es el suegro... algo ya me suena, pero muy poco.*
21. Urniza: *aitaútxi* bildu genuen lehendabizi, baina horrek besterik dirudi, 'aita ponteko' edo, gure ustez.
31. Eaurta: MCEk emaniko hitza da, laguntzaz emana; *aitayárba* ahoskatu ote zuen gaude.

**350. GALDERA**

2. Altsasu: Lehenengo hitza FGri zor zaio eta jarraiko aldaera, intonazio edo azentuerari dagokiona soilik, JMi.
9. Ihabar: Erantzuna MHk eman zuen, lagundua izan bazen ere.
19. Ilurdotz: Berriemaileak *gúre átsoa... una yerna a su suegra* esan bazuen ere, erantzuna ez dugu koadroetara ekarri kasu honetarako desegokia delakoan.

**351. GALDERA**

1. Ziordia: Herri honetatik hurbileko Olaztin *goinatubá* eman ziguten.
2. Altsasu: Lehenengo hitza FGk emana da; JMek bestea.
9. Ihabar: Erantzuna MHk eman zuen, AI eman gabe geratua baitzen.
29. Garaioa: Berriemailea mintzo: *oréi... oróitu zeidá e... izén oi, goñátua.*

**352. GALDERA**

1. Ziordia: Herri honetatik hurbileko Olaztin *góinatiá* eman ziguten.
2. Altsasu: Lehenengo hitza FGk emana da; JMek bestea.
9. Ihabar: Erantzuna MHk eman zuen, AI eman gabe geratua baitzen.
31. Eaurta: MCEri bilduriko hitza da, laguntzaz emana.

**353. GALDERA**

9. Ihabar: Erantzuna MHk eman zuen, AI eman gabe geratua baitzen.
31. Eaurta: *yérnoa* erdal hitza MCEk eman zuen elkarrizketa baten harian.

- Nº 349 SUEGRO - BEAU-PÈRE - FATHER-IN-LAW**  
**Nº 350 SUEGRA - BELLE-MÈRE - MOTHER-IN-LAW**  
**Nº 351 CUÑADO - BEAU-FRÈRE - BROTHER-IN-LAW**  
**Nº 352 CUÑADA - BELLE-SŒUR - SISTER-IN-LAW**  
**Nº 353 YERNO - GENDRE - SON-IN-LAW**

<b>1. Ziordia</b>	suégría		kúñadiá	kúñadá	súýa*
<b>2. Altsasu</b>	aitág(y)érra. aitágijerrá	amágiérra. ámagierrá	kuñátu(b)á. góinetu(b)á	gúñatí. kóinatá	súya
<b>3. Bakaiku</b>	áitagierryá. áitagijarr(e)á	ámagiyerrá; suégréá	góñeduá	kúñadiá	súiyá
<b>4. Dorrao</b>	àittayarrebá	amáyarrebá	góñeduá	goñetá	súyá
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	áittaiarréba	ámaiarréba	góñedúá	goñéta	súyä
<b>6. Arbizu</b>	áittayárréba. aittá(g)iarreba	ámayárréba	góñeduá	goñetá	súya
<b>7. Uharte-Arakil</b>	éittearrebá	ámarrebá	gúñadoá	gúñadá	súyé
<b>8. Murgindueta</b>		amáiarréba*	kuñatuá	kóñatá	suiyé
<b>9. Ihabar</b>	aitaiarréba*	amáiarréba*	kúñaduá	goñata	suyé
<b>10. Madotz</b>	á(i)ttarrebá. aittárrebá	ámarrebá?	kúñadcá	kóñatá	suyé
<b>11. Egiarreta</b>	andren aite; senarren aite	andren ama; senarren ama	koñadua	koñata	alaban senarra
<b>12. Urritzola</b>	aitarréba	amaiarréba	goñadua	goñata	súie. súia
<b>13. Larunbe</b>				koñáta*?	
<b>14. Beorburu</b>	aitarréba	amarréba. amàgiarréba	kuñadua. kuñádoa	koñáta	súye*
<b>15. Usi</b>	áittearréba	ámaiarréba	koñadua	koñátá	súye
<b>16. Ziaurritz</b>	aite(i)arréba	ámaiarréba	koñadua	koñáta	súye
<b>17. Anotz</b>	senárran áite	senárran áma	senárran anáie*	koñáta	
<b>18. Olaitz</b>			goñétue		
<b>19. Ilurdotz</b>	suegro	suegra	goñátue	goñátua?	
<b>20. Inbuluzketa</b>	áitearréba	amarréba	goñátue	goñata	súye?
<b>21. Urniza</b>	aitéarrea		goñátue	goñata	alábain senárra
<b>22. Aurizberri</b>	aitaiarreba	amaiarreba	goñatua	goñata	
<b>23. Espotz</b>			goñatua	goñáta*	
<b>24. Arrieta</b>	aitárreba	ámaarréba	goñatua	goñata	náusi gáztea
<b>25. Azparren</b>					
<b>26. Garralda</b>			koñatua, koñatu	koñatua, koñatu	
<b>27. Aria</b>	suegroa		goñatua	goñata	
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>	aitarreba	amarreba	goñatua	goñata	
<b>29. Garaioa</b>			goñatua	goñáta	
<b>30. Abaurregaina</b>	aitarreba	amearreba	goñatoa	goñata	
<b>31. Eaurta</b>	aitagiárba*			guñáta*	yérnoa
<b>32. Espariza</b>	aita(g)íérba	ama(g)íérba	guñátia, guñáte	guñatará, guñáta	
<b>33. Ezkaroze</b>	aitagiarba	amagiarba	kuñátia	gúñatará	
<b>34. Otsagi</b>	aitagiarbara, aitagiarba	amagiarbara, amagiarba	kuñatia	kuñatia	
<b>35. Uztaroze</b>	suégroa	suegrá	kuñatiá, kuñate	kuñatá	yérnoa

**354. GALDERA**

2. Altsasu: FGk *erréina* eman zuen, lagundurik baina. JMek *erréiná*, berez.
3. Bakaiku: Berriemaileak hitz honen euskal ordaina ez oroitzearen ustezko arrazoia eman zuen: *béti, txíki-txíkitatí... ási gindaneán erdéaz da erdéaz, da gio akábo.*
9. Ihabar: Erantzuna MHri zor zaio, laguntza behar izan bazuen ere, Al eman gabe geratua baitzen.
13. Larunbe: Erantzuna lagunduta eman zuen berriemaileak, zera gaineratuz: *he oído una vez.*

**355. GALDERA**

1. Ziordia: Herri honetatik hurbileko Olaztin *áitajuná* eman ziguten.
2. Altsasu: FGk *aitájuná / àita jáuna*; JMek *áita jauná*.
4. Dorrao: *ei-* hasieraduna ere bildurik gaude: *éittuná / éittune.*
9. Ihabar: Erantzuna Ali zor zaio. MHk gaztelaniazko mailegua erabili ohi zuen.
10. Madotz: Berriemaileak behin, haren aitonaz ari zela, *àttautxí* hitza erabili zuen; aitonaz gainera aitapontekoia izango ote zen, agian?
12. Urritzola: eta *attúnan anáie* 'tío abuelo'.
20. Inbuluzketa: *aitaútxi* 'padrino'.
19. Ilurdotz: *apítxi* 'padrino' bildu genuen, bide batez.
24. Arrieta: *bai, nère apitxi Bordéleko sémea* esan zigun behin berriemaileak, aitaren aldetiko erro bat Luzaidetik zetorrela adierazteko.
31. Eaurta: CS-ek *abón* eman zuen, eta baita *aitabórze* 'padrino (de bautizo)' ere. MCEk, berriz, *abuélo*, eta baita *aitatto* ere, hau lagundurik.
35. Uztarrove: *álloa* haurtzaroan bakarrik esaten zela esan zuen berriemaileak. Guk proposatu 'aitani' ezaguna egin zitzaison, baina hori baino gehiago *abuelozarra*. Bestalde, *aitadérра* 'el padrino' bildu genuen.

**EAEL-EN ARGITARATUAK:**

(aldi honetan eskatu ziren bietatik bigarrena)

Urdiain: *attuna / Lizarraga: aituna / Etxarri-Aranatz: aittune / Irañeta: abuelo / Alli: aitona / Gartzaron: aitauxti; attune / Autza: aitatxi / Ziganda: abuelo / Eugi: aitatxi / Mezkiritz: apítxi / Auritz: apitxia / Iraberri: aitetxi.*

**356. GALDERA**

1. Ziordia: Herri honetatik hurbileko Olaztin *amandriá* eman ziguten.
2. Altsasu: FGk eta JMek berdin-berdin: *amína*.
5. Etxarri-Aranatz: Hizketaldi soltean *amin* esan zuen inkestaren 2. zatiari erantzuna eman zion AEk: *lénoko àmin zárrak* 'las abuelas de antaño' edo.
9. Ihabar: Erantzuna Ali zor zaio. MHk gaztelaniazko mailegua erabili ohi zuen.
19. Ilurdotz: *amítzia?* 'madrina' bildu genuen ere, ziurtasun handirik gabe baina.
20. Inbuluzketa: *amagútxi* 'madrina'.
24. Arrieta: *nerè amitxi... Mizkóizko alába; ezkondú zé gur étsera, Arrírata, Marténetséra.* Artzibarko Imizkotz herrixka da aipaturiko hori.
31. Eaurta: CS-ek *abóna* eman zuen, eta baita *amabórzia / amórzia* 'la madrina (de bautizo)' ere. MCEk, berriz, *abuélala*, eta baita *amatto* ere, hau lagundurik.
35. Uztarrove: *allá* haurtzaroan bakarrik esaten zela esan zuen berriemaileak. Guk proposatu 'amani' ezaguna egin zitzaison, baina hori baino gehiago *abuelazarra*. Eta besterik ere bildu genuen, *amandérra* 'la madrina', alegría.

**EAEL-EN ARGITARATUAK:**

(aldi honetan eskatu ziren bietatik bigarrena)

Urdiain: *abuela / Lizarraga: amiña / Etxarri-Aranatz: amiñe / Irañeta: abuela / Alli: amona / Gartzaron: amatxi; amandrea / Autza: amatxi / Ziganda: abuela / Eugi: amatxi / Mezkiritz: amitxi / Auritz: amitxia / Iraberri: amatxi.*

**Nº 354 NUERA - BELLE-FILLE - DAUGHTER-IN-LAW****Nº 355 ABUELO - GRAND-PÈRE - GRAND-FATHER****Nº 356 ABUELA - GRAND-MÈRE - GRAND-MOTHER**

<b>1. Ziordia</b>		abuélua	abuélia
<b>2. Altsasu</b>	erreiná	aitájuná. àita jáuna	amína
<b>3. Bakaiku</b>	érreiná*. erréná*	àittuná; abuélo	ámiñá
<b>4. Dorrao</b>	erreñá	aittúna, àittun bét	amíña. ámiñé
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	érréña	áittuná	amíña
<b>6. Arbizu</b>	erráña	áittuna	amíña
<b>7. Uharte-Arakil</b>	érreñé	aittúne	ámiñé
<b>8. Murgindueta</b>	èrrañé	abuélo	abuélia
<b>9. Ihabar</b>	errañé*	áitona	ámoñá
<b>10. Madotz</b>	erráñé	áttuná. attúna	amandré
<b>11. Egiarreta</b>	semearen emaztea	attúna; abuelo	amóña; abuela
<b>12. Urritzola</b>	erráñe. erráña	attúne. attúna	amona
<b>13. Larunbe</b>	erráñe*	attúne	amóna
<b>14. Beorburu</b>	erráñe	abuéloa	abuélia
<b>15. Usi</b>	erráne?	aitóna; abuélo	abuélia
<b>16. Ziaurritz</b>		aitétxi; abuélo	amátxi
<b>17. Anotz</b>		aitátxi?	amátxi; abuélia
<b>18. Olaitz</b>		attúne, attún	amútxi
<b>19. Ilurdotz</b>		abuélo	abuélia
<b>20. Inbuluzketa</b>		apítxi	amítxi
<b>21. Urniza</b>	seméain ándrea	aitétxi	amátxi
<b>22. Aurizberri</b>		apitxi	amatxi. amitxi
<b>23. Espotz</b>		apítzia	amítxi
<b>24. Arrieta</b>	txokándre gáztea	apítxi; aitátxi	amátxi. amítxi. amitxi
<b>25. Azparren</b>		aitátxi*	amitxi
<b>26. Garralda</b>		aitatxi	amatxi
<b>27. Aria</b>		apitxi	amitxi
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>		apitxi	amiña
<b>29. Garaioa</b>		aitútxi	amútxi
<b>30. Abaurregaina</b>		apitxi	amutxa
<b>31. Eaurta</b>		abón; abuélo; aitatto*	abóna; abuélia; amatto*
<b>32. Espartza</b>		aitátto	amátto
<b>33. Ezkaroze</b>		abuelo	abuela
<b>34. Otsagi</b>		aitaborzëa, aitaborze	amorzëa, amorze
<b>35. Uztarroze</b>	nuerá	abuéloa; álloa	abuelá; allá

**357. GALDERA**

1. Ziordia: Herri honetan bildu ez genuen erantzuna Olaztin eman ziguten: *ilóbiá*.
2. Altsasu: FGk eta JMek erantzun bera eman zuten.
9. Ihabar: Erantzuna MHri zor zaio, Al eman gabe geratua baitzen.

**358. GALDERA**

1. Ziordia: Herri honetan bildu ez genuen erantzuna Olaztin eman ziguten; *ilóbiá* kasu honetan ere.
9. Ihabar: Erantzuna MHri zor zaio, Al eman gabe geratua baitzen.
35. Uztarroze: Inuesta egitean berriemaileak *nietá*, *niéta* emanik ere, elkarrizketa askean *llóba* erabili zuen: *xinen bitrá... gazték, dau-dézu Urúñan, sénarremáztiaik, eta bí... llóba*.

**359. GALDERA**

2. Altsasu: JMen erantzuna da.
3. Bakaiku: IArí *illoá* eman zigun eta haren lehengusu PAK, errepasoa egitean, *illoa / illoba*.
8. Murgindueta: Berriemailea ez zen oso ziur agertu hitzaren esanahiaz.
18. Olaitz: *éztakít já* esan zuen berriemaileak, etsita nonbait, azken galderetik eman beharreko erantzunetan eskas xamar egon zela ikustean.
19. Ilurdotz: Erantzuleak zera esan zuen: *etórrí dé nére elléba bat*.
32. Espartza: Berriemaileak erantzun hau emateko laguntza behar izan bazuen ere, duela urte gutxi ikusi genuen LSek erraztasunetik eman zuen.
35. Uztarroze: *úra dún llobá, él es el sobrino gaineratu zuen berriemaileak*.



Aezkoako Hiriberri herriaren ikuspegia - KA2012

**Nº 357 NIETO - PETIT-FILS - GRAND-SON****Nº 358 NIETA - PETITE-FILLE - GRAND-DAUGHTER****Nº 359 SOBRINO (HIJO DE HERMANO) - NEVEU (FILS DU FRÈRE) - NEPHEW (BROTHER'S SON)**

<b>1. Ziordia</b>			íllobiá
<b>2. Altsasu</b>	ilóba		ilobá
<b>3. Bakaiku</b>			ílloá. illoa. ílloba
<b>4. Dorrao</b>	íllobá	íllobá	íllobá
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	illéba	illéba	ílleba
<b>6. Arbizu</b>	íllebá	ílleba	ílleba
<b>7. Uharte-Arakil</b>	íllebá	íllebá	íllebá
<b>8. Murgindueta</b>			íllebá
<b>9. Ihabar</b>	íllebá	íllebá	illéba. illebá
<b>10. Madotz</b>	ílloá	ílloá	ílloá
<b>11. Egiarreta</b>	seemeen semea		iloba
<b>12. Urritzola</b>	illoa. illóba. illebá	illóa	
<b>13. Larunbe</b>			illéba
<b>14. Beorburu</b>			illéba
<b>15. Usi</b>			illéba
<b>16. Ziaurritz</b>			illéba
<b>17. Anotz</b>			illéba
<b>18. Olaitz</b>			
<b>19. Ilurdotz</b>	nieto	nieta	elléba
<b>20. Inbuluzketa</b>	illéba	illéba	illéba
<b>21. Urniza</b>			lléba
<b>22. Aurizberri</b>			elleba
<b>23. Espotz</b>			elléba
<b>24. Arrieta</b>			lléba. elléba, elléb'at
<b>25. Azparren</b>			
<b>26. Garralda</b>		eiloba	eiloba
<b>27. Aria</b>			eiloba. ailoba. iloba
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>	eiloba	eiloba	eiloba
<b>29. Garaioa</b>	eilóba	eilóba	eilóba
<b>30. Abaurregaina</b>	eiloba	eiloba	eiloba
<b>31. Eaurta</b>			lióba
<b>32. Espartza</b>	lióba; niéto	niétara, niéta	lióba
<b>33. Ezkaroze</b>	niéto	nieta	lióba
<b>34. Otsagi</b>			liobara, lioba
<b>35. Uztarroze</b>	niétoa, niéto	nietá, niéta; llóba	llobá, llóba

**363. GALDERA**

1. Ziordia: Herri horretan eman ziguten erantzuna bitxi samarra izatean, Olaztin egin genuen galdera; *ilóbiá* eman ziguten.
2. Altsasu: FGren erantzuna da.
9. Ihabar: *lengúsié* Alek eman zuen; *lengusuá*, *lengusu át* MHk.
19. Ilurdotz: Hona esaldi bat: *ez dire anáyak, dire lengúsuak*. Ondoren, *lengúsuak báizik\** eman zuen, guk bultzaturik, baina berriemaileak hitza ongi ezagutzen zuen, beste uneren batean honela esan baitzuen: *iñór* (sic) *eztáki báizik Pédrok*.
27. Aria: Eta *aideak* 'los parientes'.
31. Eaurta: Eta *askázi* 'pariente' –lehengusu bat, adibidez– MCEren arabera: *askázi batekin, primo batekin*.
32. Espartza: Berriemaileari *guziáleña*, *guziálen bat* bildu genion aspaldi; LSi, duela urte gutxi, *kósín*.
35. Uztarrove: *tún kosíno, los hombres... ditún kosíno, son primos* esan zuen berriemaileak, hasieran aditz laguntzailearen era laburtua eta ondoren osoa erabiliz.

**364. GALDERA**

1. Ziordia: Herri horretan bildu ez genuen erantzuna Olaztin eman ziguten: *ilóbiá*. Hots, informatzaile olaztiarrak hitz honekin gazi. 'nieto/nieta' eta 'primo/prima' izendatzen zituen. Ez dakiguna da zein hitz erabiltzen zuen gatz. 'sobrino/sobrina' bikotea izendatzeko, ez baitzen oroitzen.
2. Altsasu: JMen erantzuna da.
4. Dorrao: Baino *léngusubek* 'los primos'.
17. Anotz: Informatzailea ez zen agertu oso ziur hark berak emaniko erantzunaz.
35. Uztarrove: Eta *ázkaziák / azkátzéak* 'los parientes'.

**365. GALDERA**

1. Ziordia: Hemendik hurbil, Olazti auzu-herrian, *laguna* 'compañero/a' da; hona hitza esaldi baten barruan: *béti eskian abíl! eztákin kantáitti urá? artzén badakizú ematén ikási, béstela ibilduko zadá lagünarén igási*.
- 2 Altsasu: FGren erantzunak dira biak.
5. Etxarri-Aranatz: *laúna* AEk eman zigun; *launé* MMk, hori 'amigo' dela zehaztuz.
6. Arbizu: *adíxkidia* gertuagokoa omen da *láunä* baino, ia-ia ahaidea edo; *úixkide*, berriz, 'pariente lejano'.
9. Ilurdotz: *aizkide* gisako aldaera bildu genuen orobat: *opátu zirén aizkide batzük*, eta baita, *láune* hitzari dagokionez, esaldi hau ere: *prigória eta... láune, prigória es el mayordomo*.
22. Aurizberri: *aixkidea = amigo, eta laguna = camarada*, zehaztu zuen berriemaileak.
24. Arrieta: *aizkidea* eta *laúna* ere bai.
31. Eaurta: CS-ek bigarren hitzaren esanahia zehaztu zuen: *lagún* 'compañero'.
35. Uztarrove: *lagún* ere bildurik gaude, azentuera azken silaban.

**Nº 363 PRIMO - COUSIN - COUSIN (MALE)****Nº 364 PRIMA - COUSINE - COUSIN (FEMALE)****Nº 365 AMIGO o CAMARADA - AMI ou CAMARADE - FRIEND or COMRADE**

<b>1. Ziordia</b>	iztár léngusuá		láguna; aízkiria. aízkiria
<b>2. Altsasu</b>	lengusuá	léngusuá	lagúna, lagún; aixkide
<b>3. Bakaiku</b>	léngusuá	léngusuá	láunà
<b>4. Dorrao</b>	léngusubá	léngusubá	lagúna, lagún
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	léngusuä	léngusuä	laúna. launé
<b>6. Arbizu</b>	léngusué	léngusué	láunä; adíxkidia
<b>7. Uharte-Arakil</b>	léngusuá	léngusuá	láune
<b>8. Murgindueta</b>	léngusié	léngusié	aixkide; láuné
<b>9. Ihabar</b>	lengusié. lengusuá	lengusié?	áixkideá; láguné
<b>10. Madotz</b>	léngusií	léngusií	launé, láun bát
<b>11. Egiarreta</b>	lengusie	lengusia	aixkidía; laune
<b>12. Urritzola</b>	lengúsie	lengúsie	aixkídea, aixkide; laúna
<b>13. Larunbe</b>	lengúsua*	lengúsie	aixkídia, lagúne
<b>14. Beorburu</b>	lengúsua	lengúsie	aixkídea; lagúne, láun
<b>15. Usi</b>	lengúsua	lengúsie	aixkídia; lagúne, lagún
<b>16. Ziaurritz</b>	lengúsua	lengúsie	aixkídia, aixkide; lagún
<b>17. Anotz</b>	lengúsua	lengúsie?	aixkídia; lagúne, laún
<b>18. Olaitz</b>	lengúsua?		lagúne
<b>19. Ilurdotz</b>	lengúsua. lengósue	lengúsua	aixkídea, aixkide; láune
<b>20. Inbuluzketa</b>	lengúsie	lengúsie	aixkídia; laúne, lagún
<b>21. Urniza</b>	lengúsue	lengúsie	aixkídea; laúne
<b>22. Aurizberri</b>	lengusua	lengusua	aixkidea; laguna
<b>23. Espotz</b>	lengúsua	lengúsua	aixkide
<b>24. Arrieta</b>	lengúsu		aixkídia, aixkide; láuna, láun
<b>25. Azparren</b>		lengúsia	
<b>26. Garralda</b>	lengusua, lengusu	lengusua, lengusu	aiskidea, aiskide
<b>27. Aria</b>	lengusua	lengusia	aiskidea. axkidea
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>	lengusua	lengusua	axkidea
<b>29. Garaioa</b>	lengúsua	lengúsia	adiskídea; lagúna
<b>30. Abaurregaina</b>	lengusua, lengusu	lengusia, lengusi	adiskidea, adiskide
<b>31. Eaurta</b>	guziálen*?		adískide; lagún
<b>32. Espartza</b>	guziálen; kósin	guziálena, guziálen	adíxkidéa, adíxkide
<b>33. Ezkaroze</b>	guziálen	guziálen	adixkídea
<b>34. Otsagi</b>	guzialena, guzialen	guzialena, guzialen	adiskidéa; laguna
<b>35. Uztarroze</b>	kosíno; ku(t)xaléna	kuxalená. koxalená	arixkídea; láguna, lágun

**366. GALDERA**

2. Altsasu: Erantzunak FGrenak dira, JMek ere antzera eman zuela: *mútíla*.
11. Egiareta: *ítxe ortáko mutillé*.
12. Urritzola: Mugagabea *morrói* eta *neskáme* dakusagu geure oharretan.
16. Ziaurritz: *mutille* 'mozo', argitu zuen erantzuleak.
19. Ilurdotz: *gúre mutíle* ('nuestro criado', alegría) esan zuen berriemaileak.
20. Inbuluzketa: Eta *mutikua* 'el chico', erantzulearen arabera.
22. Aurizberri: *erriko mutila* = *alguacil* eman zuen bide batez informatzaileak.
24. Arrieta: *étseko mutíla* 'el criado', bildu genuen.
25. Azparren: Berriemaileak honako esaldia bota zuen gaztelaniaz: *en donde manda el amo, se ata el burro; en donde manda el criado, más seguro*.
32. Espartza: Informatzaileak *zerbitzari* eman zuen, guk proposaturik.
35. Uztaroze: *neská* 'la criada', izatekotan.

**367. GALDERA**

1. Ziordia: Herri honetako erantzuna laguntzaz bildu genuenez, Olaztin galdueta eta, geroaldirako, *izango da* eman ziguten.
2. Altsasu: FGk emaniko erantzunak dira.
3. Bakaiku: Hona, eskuin aldeko *izanko* horrez gainera –*izango* ere bildu dugu herri honetan– zenbait aditz zaharrek geroaldiko aspektua hartzean -*nko* egiten duteneko adibide batzuk: *fanko / junko* eta *jakinko*, adibidez. Ez lego ke hemen sobera oroitaraztea XIX. mendean Bonaparte printzeak Garesen *janko nuke, janko nue, janko zue...* gisako emaitzak bildu zituela (Francisco Ondarra, *FLV*, 39, 1982).
4. Dorrao: Herri honetan, koadroetako *izein* horren haritik, *ixein* (= 'biztu') eta *fain* bildurik gaude, baina baita *manko* eta *eonko* moduko emaitzak ere.
5. Etxarri-Aranatz: Herri honetan, koadroetako *izaan-en* haritiko *esaan* eta *faan* gisako geroaldiko laginekin batera *izango* eta *eingo* moduak ere baditugu, -*nko-rik* batere gabe, baina.
6. Arbizu: Koadroetako *izeen* horren aldaera gisa *izaan* edukitzeaz gainera (*izango* ere bai), ildo bereko *faan* eta *juaan* moduko emaitzak ditugu, *fango, fuaan* eta *fuango* aldaerakin batera.
7. Uharte-Arakil: Koadroetarako erantzuna ematean *izeen* erabilagatik *izaen* ere bildu genuen eta baita, bestalde, *esaan* eta *juuan* jakingarri batzuk hala nola *jakinén* eta *inko* gisako emaitzak ere.
8. Murgindueta: Koadroetako emaitzaz gainera, *izenko* agertzen zaigu gure materialetan, hala nola *janko, joanko, esanko eta eranko* 'edango' modukoak ere.
9. Ihabar: Hona, honen aurreko oharretan aipaturikoari jarraipena emanez, herri honetan bilduriko emaitza batzuk: *esanko / esango, inko / ingo, emanko / emango, jakinko eta joanko, baina jaen*; adibide hauek Ali zor zaizkio baina MHK ere eman zituen bereak: *janko / jaen, esanko / esango, izenko / izenen, eranko, joanko / juanko, inko, ixinko* 'biztuko' eta *manko / main*, azken hau honako esaldian: *gizonák máin dú limósna*. Hau aditzean galduet genuen: Eta 'manko du'? - *Está mejor* izan zen erantzuna. Eta behin 'limosna' hitza aipatu denez gero, zilegi bekigu, geroaldiarekiko zera hauekin inolako zerikusirik ez izanik ere, MH honexek *bazkoanamores* moduko hitz bitxia ('limosna de Pascua de Navidad') eman zigula aipatzea.
11. Egiareta: Herri honetan, koadroetako *izaen* (*izain* ere bai) horretaz gainera, *iñen, emain* eta *joanen / joaen / joain / juain / juango* baizik ez dugu ikusten gai honi buruz ditugun datu urri xamarretan.
1. Ziordia: Herri honetatik hurbil, Olaztin, öilàxko bát 'un pollo'.
2. Altsasu: TGk ollárra eta JMek óillarrá.
5. Etxarri-Aranatz: olláixkúak 'los polluelos'.
9. Ihabar: Alek eman zuen erantzuna, zera gaineratuz: olláskoa, el pollo.
14. Beorburu: olláskoa 'el pollo' bildu genuen halaber, bide beretik.
18. Olaitz: ollárko 'pollo', bildu genuen era berean.
19. Ilurdotz: ín gindué ollárra parríllen, súbondoan in tze óngi ollárra. Ollásko hitza ere bildu genuen.
21. Urniza: olláskua ere bai.
22. Aurizberri: ollaskoa bildu zuen era berean galdegileak.
24. Arrieta: olláskoa ere bai.
27. Aria: oilasko, oilaxko eta ollaxko moduko aldaerak eman zituen berriemaileak.
31. Eaurta: CS-ek, óllar hitzaz gainera, ollásko 'pollo' ere eman zuen.
32. Espartza: ollárko ere bai.

#### 446. GALDERA

Hitz honek, leku askotan galdu ere egin ez denak, ez du ezer jakingarririk ekarri, bildu den lekuetan erdal mailegu gisa erabiltzen dela agerian geratu izana ez bada.

- Nº 444 CUERVO - CORBEAU - CROW**  
**Nº 445 GALLO - COQ - COCK**  
**Nº 446 PAVO - DINDON - TURKEY-COCK**

<b>1. Ziordia</b>	bélia	óllarra	
<b>2. Altsasu</b>	béla bat, béla / maríka	ollarra. óillarrá	
<b>3. Bakaiku</b>	beliá, bélá / txoa / txóri nabarrá / eskúxua?	óillarrá. óllarrá	
<b>4. Dorrao</b>	bélia	óllarrá	
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	bélia, bélie, béle / txoa / píkaráza	óllarrá	pábua
<b>6. Arbizu</b>	bélia / txóga	óllarra	
<b>7. Uharte-Arakil</b>	belié / bèlorreyé / bélenabarrá	óllarra	
<b>8. Murgindueta</b>	béleá / eskixué	óllarrá	
<b>9. Ihabar</b>	beliá	ollárrá	
<b>10. Madotz</b>	béleé / bélebeltxá / bélenabárra / ixxixú	óllarrá	páboa
<b>11. Egiarreta</b>	belia / txoa / ixxisue	ollarra	paboa
<b>12. Urritzola</b>	bélea, béle / txoa	ollarra	páboa
<b>13. Larunbe</b>	bélea*	ollarra	
<b>14. Beorburu</b>	beléa, béle	ollarra	
<b>15. Usi</b>	bélia	ollarra	
<b>16. Ziaurritz</b>	bélea	ollarra	
<b>17. Anotz</b>	bélëa / txoa*	ollarra	
<b>18. Olaitz</b>	bélia* / txoa / pikaraza	ollarra	
<b>19. Ilurdotz</b>	belorráie, belorrái / txóga / pikaráza	ollarra, ollár	
<b>20. Inbuluzketa</b>		ollarra	pábua
<b>21. Urniza</b>	bélea / belorráia	ollarra	páboa
<b>22. Aurizberri</b>	belea	ollarra	
<b>23. Espotz</b>		ollarra	
<b>24. Arrieta</b>	kuérboa / txoa	ollarra	
<b>25. Azparren</b>	apezarrío?	ollarra	
<b>26. Garralda</b>	erroia, erroi	oilarra, oilar	
<b>27. Aria</b>	arranoa	oilarra	paboa
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>	arranoa	oilarra, oilar	paboa
<b>29. Garaioa</b>		ollarra	
<b>30. Abaurregaina</b>	erroia, erroi	oilarra, oilar	
<b>31. Eaurta</b>	errói / txóba	óllar	
<b>32. Espartza</b>	erróia	óllarra	paboá
<b>33. Ezkaroze</b>	erróia	ollarra	páboa
<b>34. Otsagi</b>	erroia, erroi / bele / txoa	ollarra, ollar	
<b>35. Uztarrove</b>	kuérboa	ollarra, ollár. óllar	páboa

**447. GALDERA**

2. Altsasu: *muskárra* hori JMi zor zaio, zeinak, geuk galdeturik, *sogandila* 'lagartija' ere eman zuen. TGri, honetarako, *sugándilá* bildu genion.
4. Dorrao: *súmendillé* 'la lagartija' eman zigun halaber informatzaileak.
5. Etxarri-Aranatz: *súgandillá* eman zuen bide batez berriemaileak, beste izen pare bat gaineratuz: *kunkún* 'sapo' eta *zápoitzéla* 'rana'.
7. Uharte-Arakil: Honako hitzak bildu genituen orobat: *suméndillé*, *iyelá* 'la rana', eta *zápoá* 'el sapo'.
8. Murgindueta: *subendille* / *suméndillé*, *igelá* / *ielá* 'la rana' eta *zàrrapoá* 'el sapo'.
9. Ihabar: MHk eman zituen erantzunak, hitz batzuk gaineratuz: *súmandillé*, *ielá* eta *zàrrapoá* 'el sapo'.
- 10: Madotz: *saárdiñé* 'lagartija', *ialá* 'rana' eta *zapóá* moduko hitzak ere bildu genituen.
11. Egizarreta: *subendille*, *igéla* eta *zapoa* ere bai.
12. Urritzola: *suandillé* 'lagartija'.
14. Beorburu: *sugandille* eman ziguten bide batez eta baita, beste une batean, *subandille* gisako aldaera ere.
16. Ziaurritz: *subendille* bildu genuen halaber, bidenabar.
17. Anotz: *Ya he oído yo gaineratu zuen erantzuleak muxkerra* (lagunduta) eman ondoren.
19. Ilurdotz: *bézok*, *bézok ór*, *or bádáye mûsker bat* esan zuen berriemaileak, *en español* *gardacho se llamaba azalduz*. Halaber, *sogandilla*, *sogandille bat* '(una) lagartija', *buruandiek* 'renacuajos', eta *arrápo edo larrápoa* (ikusi dút arrápo bát aúndie) zein *zápo* 'sapo', ustez hitz sinonimoak, eman zituen, eta azken honetaz zera gaineratu: *Al sapo le temían, porque dicen que era venenoso; si le tocaba a alguien pensaban que enfermaba*. *En el regacho había puente para pasar de un lado a otro...* "Bezók, ór bádáye zápo bat, eta idúki... zázi kontueíkin". Beste egun batean ere antzeko iruzkina egin zuen, baina oraingoan *arrápoa*, 'sapo' gabe, 'alacrán' dela esan ondoren: *Decían que despedía veneno; "goáye kontueíki eztaíela átra arráplan bat eta ozkatu"*. *Se escondía debajo de las piedras medianas y entre grietas*.
21. Urniza: *sugandille* bildu genuen, halaber, eta baita *zápoa* edota *arrápoa\** ere.
22. Aurizberri: *sugandilla o subandilla = lagartija*, eta *arranoa = arrancón* (color negro y amarillo), idatzi zuen alboan biltzaileak. Kolorearekiko zehaztapenak bide ematen digu hori 'arrabio arrunta', gazt. 'salamandra' dela pentsatzeko eta baita *arrancón* izen bera, Ilurdotzen aditu *arráplan* / *alacrán* delakotik hain hurbil egotean, anfibio berberaz ari zirela pentsatzeko ere.
23. Espotz: 'lagarto' hitza esaten asmatu ez bazuen ere, *sugandilla* 'lagartija' eman zigun berriemaileak.
24. Arrieta: Ermaniko erantzunaz zalantza erakutsi zuen berriemaileak, *aingírua... ¿anguila o ángel?* esan baitzuen ondoren, baina bestelakorik ere bildu genuen: *sogandilla* 'lagartija', *urikáya* 'rana', *buruandíko* 'renacuajo' eta *zápoa*, azken honetaz era honetan mintzatu zela: *Si te muerde el arrancón (el arracón ere bai) no comerás más pan. Decían que era venenoso... amarillo ta beltzak; maldan értean eta belárr értean, léku zikinetan....* (ibiltzen ziren, nonbait). Dirudienez, inguru hauetako zenbait herriaren 'sapo' eta 'arrapo' nahasten dutenez, azken hau, aipatu kolorea dela eta, 'arrabio' izan daiteke, gaztelaniaz hitz egitean *arrancón* gisa aipaturik ere. Animalia honek pozointzen duenekouste okerra, bestalde, zabaldu xamar dago adineko jendearen artean eta horrekin, agian, gazt. 'alacrán' edo 'escorpión' moduko araknidoa pozointsua izateak zerikusia izan lezake. Kontuan hartzeakoak izan daitezke era berrian Ilurdotzen eta Aurizberriin bilduriko azalpenak ere.
25. Azparren: *sugandila* eman zuen berriemaileak, eta LBk honakoak: *arraklán* (horria eta beltza; behiek jan ohi zituzten halakoak, omen); *sápoa* eta *burandíko* 'cabezón'.
26. Garralda: Galdegileak, azken orduan eta aparteko orritxo batean, *muzkarra* idatzi zuen.
27. Aria: *suandila* 'lagartija', bildu zuen galdegileak.
30. Abaurregaina: *ez niz oroitzen* esan zuen berriemaileak.
31. Eaurta: MCEk *sugandélla* eman zuen, geuk galdeturik.
32. Esparza: *múxkerrá* zein *múxkerra* ahoskatu zuen berriemaileak era jarraituan, Zaraitzu aldean maiz *u batek i bihurtzeko joera* duela agerian jarriz. Eta besterik ere bildu genuen: *súgandélara*, *sugandéla* '(la) lagartija', *zápo-zamária* 'el sapo', *igála* 'la rana' eta *kapútxinöök* 'los renacuajos'.
33. Ezkaroe: *múxkerra, en castellano gardacho*, esan ziguten: *pues kán, múxker bat; ez bégiruen... beldurrik, pikátre zuéla, súgia bezála... múxkerra*.
34. Otsagi: *sugandelara*, *sugandela* '(la) lagartija'.
35. Uztarroe: *al lagartijo subikándra*: *subikándra bat dión kór*. Beste aldi batean, baina, *sugekándra* bildu genuen.

**448. GALDERA**

1. Ziordia: Gure oharretan zera dakusagu: 'gabinára = ¿vencejo? ¿murciélako?' berriemailea ez baitzegoen ziur, nonbait. Olazti auzo-herrian, berriz, *iradiá?* eman ziguten, baina zalantzatan, informatzailea ez baitzen ongi oroitzen.
2. Altsasu: Erantzuna JMena da.
4. Dorrao: Berriemaileak *txirriña* eman zuen, baina hori 'murciéLAGO' ez, 'vencejo' da gure ustean, enararen antzeko txoria, zenbait lekutan 'avión' izenez ere ezagutzen dena. Jende dezentez nahasten ditu 'murciéLAGO', 'golondrina' eta 'vencejo' animalien izenak, aurreneko ugaztuna bada ere.
11. Egizarreta: *zirriñek* ere 'los vencejos' aipatu zituen berriemaileak erantzuna ematerakoan: *zirriñek etórri deé*.
12. Urritzola: *zirrín, zirriñek* 'los vencejos' bildu genuen bide batez.
14. Beorburu: 'murciéLAGO' ez baina *txirriñi* 'vencejo' (eta beste une batean *tzirriñi*, mugatua) eman zigun informatzaileak.
16. Ziaurritz: *txirrín* eman zuen erantzuleak lehenik, baina ondoren hori 'vencejo' izeneko txoria dela argitu zuen.
17. Anotz: *txirrín* 'golondrina' eman ziguten hemen ere, ohiko nahasmenean eroriz.
19. Ilurdotz: *ináre / ináre / inére* 'golondrina' bildu genuen: 1) *kantátu dú inériak*; eta 2) *ináreak etórri diré, gáur artsáldean, erríko dorrára, etxetárra eta bérre kántuek áitzten diré, familiék áitzten duté*. Berriemaileak, baina, beste une batean, *iréniak* 'vencejos' eman zuen: *tienen una costumbre muy bonita, siempre aparecen el mismo día del año...* *iréniak etórri diré, dënborá óna inéin du zalui*.
21. Urniza: Erantzuna guk lagundurik eman zuen berriemaileak, zeinak, *inéria* 'golondrina' gaineratu baitzuen. Herri honetatik hegalo dera kokatu Erroibar bereko Ardaitz herrian, baina, *nináre* = *murciéLAGO* eman ziguten hara eginiko bisitaldi batean, emailearen izena jaso ez baguenen ere.
24. Arrieta: *nináre* eman zuen berriemaileak, baina ondoren hori 'vencejo' dela gaineratu.
25. Azparren: Berriemaileak *niñáre\** eman ondoren, hori 'golondrina' dela adierazi zuen. LBk aldiz, *niñáre* hori bera eman eta gero, 'vencejo' ote den zalantza erakutsi zuen.
26. Garralda: Galdegileak, azken orduan eta aparteko orritxo batean, *ñiñarea* erantsi zuen.

**32. Espartza:** Berriemailea mintzo: *bárda ikusi ginixún... sálala sàrtu xinuéen murziélagoa bat.*

**35. Uztarroze:** Berriemaileak, lehendabizi *murziélagoa* eta gero *mañári* eman zuenak (kór dión *mañári bat*, *allí hay un mañári* esan zuen), zalantzak izan zituen azken hitz honen esanahiaz, aurrenik '*golondrina*' eta ondoren '*murciélagos*' dela esan baitzuen.

**EAEL-EN ARGITARATUAK:**

Urdain: *gauinariá* / Etxarri-Aranatz: *inéresagubé* / Alli: *saguzarra* / Gartzaron: *xaguxarra* / Autza: *txerriñe* / Ziganda: *murzielago* / Eugi: *xaguxarra* / Mezkiritz: *ninere; gauiñarea* / Iraberri-Artzibar: *gabazko xagua*.

**Nº 447 LAGARTO o ANGUILA - LÉZARD ou ANGUILLE - LIZARD or EEL**

**Nº 448 MURCIÉLAGO - CHAUVE-SOURIS - BAT**

<b>1. Ziordia</b>	múskarra* / áingilia	gabinára
<b>2. Altsasu</b>	muskárra	gautxoriá
<b>3. Bakaiku</b>	múskarrá / áingeriá	gáutxoriá
<b>4. Dorrao</b>	muxkérra / ingéra	
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	múskerrá / áingerá	iñérásagu(b)ä
<b>6. Arbizu</b>	múskerrá / áingerá	íñeresá(g)uba
<b>7. Uharte-Arakil</b>	múskerrá / íngeríe	góuiñerié
<b>8. Murgindueta</b>	múskerra, músker	múrtzialaguá
<b>9. Ihabar</b>	múskerrá / áingirié	
<b>10. Madotz</b>	múskerrá	xáguxárra
<b>11. Egiarreta</b>	muskérra / angiria	xauxarra; murziélagoa
<b>12. Urritzola</b>	muxkérra; gardátxoa / angíle	xaguxár
<b>13. Larunbe</b>	muskérra*	
<b>14. Beorburu</b>	muskérra*?	
<b>15. Usi</b>		
<b>16. Ziaurritz</b>	muxkérra. muzkérra / aingíre	
<b>17. Anotz</b>	muxkérra*	
<b>18. Olaitz</b>	muxkérra* / angíla	niñáre
<b>19. Ilurdotz</b>	muxkérra. muskérra, músker / angíle. aingíle	gabináre*?
<b>20. Inbuluzketa</b>		linéria?
<b>21. Urniza</b>	puzkérra; gardátxo / aingírue	gabinéria*?
<b>22. Aurizberri</b>		gabazko inara
<b>23. Espotz</b>		
<b>24. Arrieta</b>	/ aingírua?	
<b>25. Azparren</b>		
<b>26. Garralda</b>	muzkarra. muskerra, musker	gabiñarea; ñiñarea
<b>27. Aria</b>		
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>	lagartoia	
<b>29. Garaioa</b>		
<b>30. Abaurregaina</b>		
<b>31. Eaurta</b>		iluntxori*?
<b>32. Espartza</b>	múskerrá. müxkérra / angílara, angíla	murziélagoa
<b>33. Ezkaroze</b>	múskerra, müxker bat / angíla	
<b>34. Otsagi</b>		iluntzoria, iluntzori
<b>35. Uztarroze</b>	lagártoa	murziélagoa; mañári?

**449. GALDERA**

2. Altsasu: Erantzunak TGrenak dira.
7. Uharte-Arakil: *kálfarra lúze daukék* gaineratu zuen berriemaileak, gazt. 'pelambrera' edo, gure ustez.
9. Ihabar: Alek *illék*, *illé* zuriék eta *lárrue* eman zuen, azken hau lagunduta; MHk *lárrué*.
12. Urritzola: Zerrien kasuan delarik, *kalparra / kalfarra* dakusagu geure oharretan.
18. Olaitz: *olatziñlárro = delantero* (de piel) que llevaban los pastores.
19. Ilurdotz: Berriemaileak zehaztapenak egin zituen hitzen azentuerari dagokionez, aldi batean *biloa* eta bestean *bilóa* esan eta, hortaz galdekatu genuenean: 'Zein gehiago?' - *Bíloa, más rápido* hark erantzun. Halaber, *larrue / lárrue* hitza ere azentuera desberdinez ahoskatu zuelarik, guk 'zein gehiago?' galdetu eta hark, *lárrue, rápido* erantzun. Haatik, honen ondoren eman zuen adibidean, bestelakoa erabili zuen: *gúre zaldíen lárrue*.
20. Inbuluzketa: *kendu duzíe lárrue* esan zuen erantzuleak, azken hitza emateko, hasiera batean, laguntza behar izan bazuen ere.

**EAEL-EN ARGITARATUAK:**

(gaztelaniazko 'pelos' dela eta)

Urdain: *illek eta txumak / Lizarraga: illeak / Etxarri-Aranatz: ille / Gartzaron: illea eta kalparra / Autza: kalparrak / Eugi: biloak / Mezkiritz: biloak / Auritz: biloa eta illa / Iraberri-Artibar: biloa.*

**450. GALDERA**

2. Altsasu: Erantzunak FGri zor bazaizkio ere, *ardila* TGk ere eman zuen.
9. Ihabar: Erantzuna MHrena da, zalantzakor agertu bazen ere.
11. Egizarreta: Aurrenik *artille* emaniko berriemaileak zera esan zuen errepasoa egitean: *ardien ille, ardille*.
17. Anotz: Informatzaileak 449. galderari ('pelos') *illa* eman zion erantzuna, eta 450. honi, *ardien illa*.
18. Ilurdotz: Ardiek ilean eraman ohi duten markaz mintzatu zitzagun berriemailea: *Ardie markatzéko (...) biké... aplikatzén tzué, márka, ardiei - Aplikatu, nola? - Eskús, con la mano, cogía el aparato, en la mano... - Aparailua, apraixua hartzen zuen? - Bai, aprexu... sí, aprexué; aparejo, aprexue. - Nolako zen aprexu hura? - Létra bát, létra... una A, lo que fuese, ya digo, va, sujetada en ese, en esa especie de... vara, en una punta. Létra úre, búzten tzé, búzten tzué... - Bustitzen zuen? - Bustitzen tzué píkiän, píxke bat, no... una cosa grande, no, na más un poco. - Eta gero? - Eta geró, aplicáketzen tzué, ardiei o áriei, a... la pierna, por ejemplo. - Eta bizkarrean ez? - No, no... en la lana, donde no había lana no había que poner nada, porque no... cogía, tenía que ser en la lana. - Eta aplikatzeko, sujetatzen behar zuten ardia? - Sí, uno... aguantar el animal, árdie... gizon bátek irúkitzen tzué árdie, búru... es, de la cabaña. - Burutik? - Bürutik, bürutik eskú bateki(n), eta, gíbeletik bértze eskuéikín, o sea, la oveja tenía que estar quieta, eta bértze gízonak apliketu biar tzué elléara, ardíen éllean, déna, burriñe... (kontaera labur honetan 'ardia' hitz mugatua era hauetan dakusagu: ardíe, árdie eta árdie). Eta besterik ere bildu genuen: ardién élla mózteko kuríze.*
20. Inbuluzketa: *ellázkua* 'de lana' gaineratu zuen informatzaileak eta, beste une batean, *ellárie* 'el lanero' eman.
25. Azparren: *eta ebaki dakote élia* esan zuen azkenik berriemaileak.
33. Ezkaroze: Hona, ile edo artilearekin zerikusia izanik, berriemaileak emaniko datu batzuk: 1) *múrkillara* 'la rueca para hilar lana'; 2) *rókara* 'la rueca para estopa'; 3) *amú batekin* 'con un copo'; *àmuá, es un montonico de lana*; 4) *urdéa* edota *kazkárria* 'lo sucio de la lana'; 5) *orráxtatu* 'peinarla'; 6) *ikúzi ta txúka* 'lavarl y secarla'; eta 7) *grutxélar* 'cruzamiento, trenza'.

**Nº 449 PELOS, PIEL - POILS, FOURRURE - HAIR, FUR****Nº 450 LANA - LAINE - WOOL**

<b>1. Ziordia</b>	íliak	nárrua	ardílea
<b>2. Altsasu</b>	ílak	narrúba	íli. íla; ardíla
<b>3. Bakaiku</b>	íliá	lárru(b)á	ílià
<b>4. Dorrao</b>	íllak	larrúbá	artillá
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	ílleak	lárrúba	ártillä
<b>6. Arbizu</b>	ílleak	lárru(b)a	íllea
<b>7. Uharte-Arakil</b>	íllek	lárrué	ílle
<b>8. Murgindueta</b>	ílla	lárrué	íllea
<b>9. Ihabar</b>	illék	lárrué	àrtillé?
<b>10. Madotz</b>	kálparrá	lárrúu	íllií
<b>11. Egiarreta</b>	illeak	larrué	artille. ardílle
<b>12. Urritzola</b>	illeak	lárrue	íllea
<b>13. Larunbe</b>	ílleak	lárrue	ardíen ílla
<b>14. Beorburu</b>	ílleak	larrúe	
<b>15. Usi</b>	íll(e)ak	azála; lárrue	íll(e)a
<b>16. Ziaurritz</b>	íllak	larrúe	ílla
<b>17. Anotz</b>	ílla	larrúe	ílla; ardíen ílla
<b>18. Olaitz</b>	bíloak	lárrue*	
<b>19. Ilurdotz</b>	bíloa. bíloá	lárrue. larrúe	élla. élla
<b>20. Inbuluzketa</b>	bílua	lárrue*	élla. ílla
<b>21. Urniza</b>	bíloak	lárrue	élla
<b>22. Aurizberri</b>	biloak	larrua	ellea, ella
<b>23. Espotz</b>	bíloak	larrúa	bélloa; élea*
<b>24. Arrieta</b>	bíloak	larrúa	élla
<b>25. Azparren</b>	bílúa	lárrúa	éllia*. élia*
<b>26. Garralda</b>	biloak, bilo	larrua, larru	eilea, eile
<b>27. Aria</b>	biloa	larrua	eilea
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>	biloak	larrua	eilea
<b>29. Garaioa</b>	bíloak	lárrua	élla
<b>30. Abaurregaina</b>	biloak	larrua, larru	eilea, eile
<b>31. Eaurta</b>	bíluak	lárru	íle
<b>32. Espartza</b>	bíluak	lárrua	ílea
<b>33. Ezkaroze</b>	bíloak	lárrua	ílea. íllea. ilía, íle. ílle
<b>34. Otsagi</b>	bilök, bilo	larrua, larru	ilëa, ile
<b>35. Uztarroze</b>	bíloak, bílo	lárria, lárru	ília, íle

**451. GALDERA**

1. Ziordia: Herri honetan bilduriko erantzuna ikusiz Olaztin errepikatu genuen galdera eta *buztaná* bildu, laguntza pixka batekin.
2. Altsasu: Azentuerak bereizten ditu bi aldaerak. Lehenengoa TGri zor zaio; bigarrena JMi.
10. Madotz: Berriemaileak dioenez, *ísatsá* 'rabo' ere bada; behi baten isatsa, esaterako.
23. Espotz: *buztana* hori gaztelaniazko hitza bailitzan ahoskaturik aditu uste izan genuen.

**EAEL-EN ARGITARATUAK:**

Urdain: *buztana, buztan / Lizarraga: buztan / Etxarri-Aranatz: buztana / Irañeta: buztena, buzten / Alli: isatsa; buztana / Gartzaron: puztana / Autza: buztena / Ziganda: kola / Eugi: puztena / Mezkiritz: buztana / Auritz: buztana / Iraberri-Artzibar: buztana.*

**452. GALDERA**

1. Ziordia: Herri honetan bildu erantzun lagundua ikusirik, Olaztin errepikatu genuen galdera eta *atzáparrá* eman ziguten, inguruko herriean bezala.
2. Altsasu: Erantzuna TGrena da.
9. Ihabar: MHk emaniko erantzuna da.
13. Larunbe: *atzapárra bótá* dio bildu genuen, zehazki.
17. Anotz: Erantzuleak bereizi zuen: *aztapárraki arrápatu du*, alde batetik, eta *ollárra orrék zer ánkak tu!*, bestetik.
19. Ilurdotz: *atzapárra* hitza laguntzaz bildu baguenen ere, ziurtzat jo daitekeela uste dugu, berriemaileak, ondoren, zera esan baitzuen: *atzapárraikin arrapátu du ólo bat*. Eper baten kasurako, baina, *éperraín anká...* erabili zuen.
21. Urniza: *kidélla* 'pata de un animal' eman zigun, halaber, erantzuleak, besterik bada ere.
23. Espotz: Berriemailearentzat *atzapárra* horren esanahia ('la mano' esan zuen berak) pertsona baten eskuri ere zabal dakiore.
31. Eaurta: CS-ek *atzapár* eman zuen; MCEk *aztapár*.

**453. GALDERA**

1. Ziordia: Herri honetan bilduriko erantzuna ikusiz, Olaztin galdueta eta *egoa* eman ziguten.
2. Altsasu: JMek emandako erantzuna da.
9. Ihabar: MHk emaniko erantzuna da. Alek ere hitz bera eman zuen, lagundua izanik, baina.
19. Ilurdotz: *eperréin ála* bildu genuen, alde batetik, eta *arránoak báitu ála aundiék*, bestetik. Galdueta genuen: Eta 'egala'? - *Egá-lak... puede que sea, sí...* izan zen erantzuna.
31. Eaurta: Erantzuna MCEk eman zuen, zera gaineratuz: *alára dióxu autsírik*.
32. Espartza: Berriemailea mintzo: *kori dá... èle propia, mágala; zé màgal lúze ermàte ztuén!*

- Nº 451 COLA - QUEUE - TAIL**  
**Nº 452 GARRA - GRIFFE - CLAW**  
**Nº 453 ALA - AILE - WING**

<b>1. Ziordia</b>	izátsa?	a(t)záparra*	ália
<b>2. Altsasu</b>	buzténa. búztená	atzapárra	éguá, égo bat
<b>3. Bakaiku</b>	búztaná	atzáparrá; zárpéá	éguá
<b>4. Dorrao</b>	buztená	atzáparrá	éguá
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	búztana	átzaparrá, atzápar	egúa
<b>6. Arbizu</b>	isétsa	atzáparrá	égue
<b>7. Uharte-Arakil</b>	búztená	atzáparrá	éguá
<b>8. Murgindueta</b>	ísatsá; búztaná	atzáparrá*	egála*
<b>9. Ihabar</b>	búztená	àtzaparrá	ègalá
<b>10. Madotz</b>	ísatsá	zárpa	éalá
<b>11. Egiarreta</b>	isatsa	atzaparra	eala
<b>12. Urritzola</b>	buxténa; itsétsa. isétsa. isátsa	atzapár	éala
<b>13. Larunbe</b>	buzténa*	atzapárra	egála*
<b>14. Beorburu</b>	buztána	atzapárra	egála
<b>15. Usi</b>	puzténa	atzapárra?	egála
<b>16. Ziaurritz</b>	buzténa	atzapárra	egála
<b>17. Anotz</b>	puzténa	aztapárra; ánka	egála; ála
<b>18. Olaitz</b>	puzténa		egála*
<b>19. Ilurdotz</b>	puzténa. buzténa	atzapárra	ála; egála*
<b>20. Inbuluzketa</b>	puzténa	zárpa	egála
<b>21. Urniza</b>	isétsa	atzapárra	egálëa
<b>22. Aurizberri</b>	buztana	anka?	egala
<b>23. Espotz</b>	buztána	atzapárra*	
<b>24. Arrieta</b>	búztana. buztána	atzapárra*	egála
<b>25. Azparren</b>	buztána*	atzapárra	egála*
<b>26. Garralda</b>	buztana, buztan	aztaparra, aztapar	egala, egal
<b>27. Aria</b>	buztana	aztaparra?	egala
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>	buztana		egala
<b>29. Garaioa</b>	buztána	gireila. gidéila	
<b>30. Abaurregaina</b>	buztana, buztan	atzaparra	ala
<b>31. Eaurta</b>	búztan	atzapár. aztapár	alára, ala
<b>32. Espartza</b>	buztána	àzpiá; gárra	mágala, mágal
<b>33. Ezkaroze</b>	buztána?	aztapárra	magélara
<b>34. Otsagi</b>	buztana, buztan	aztaparra, aztapar	magela, magel
<b>35. Uztarroze</b>	búztana	garrá	alá

#### 454. GALDERA

1. Ziordia: Herri honetan bezalaxe, Olaztin ere *plúmia* eman ziguten.
2. Altsasu: JMek emaniko erantzuna da.
9. Ihabar: Alek *plumé* eman zuen; MHk *plúme*.
13. Larunbe: Berriemaileak, baina, *plumía* eman zuen ondoren: *plúmiak* kéndu ttút.
19. Ilurdotz: *plúme* eta *lúme*, bi eratan bildu genuen; hona adibideak: 1) *olloáin plúme*; 2) *pizétzen du lúme bat aríne, pesa tanto como una pluma* (*arine* = 'adina', beraz); eta 3) *éztu pizuik lúme* (sic).
31. Eaurta: CS-ek *plúmara* eman zuen, MCEK bezalaxe: *plúmara*, *plúma*.

#### EAEL-EN ARGITARATUAK:

Urdiain: *lumia* / Lizarraga: *luma* / Etxarri-Aranatz: *lume* / Irañeta: *plumé* / Alli: *luma* / Gartzaron: *lume* / Autza: *plume* / Ziganda: *lume* / Eugi: *luma* / Mezkritz: *lume* eta *plume* / Auritz: *luma* / Iraberri-Artzibar: *luma*.

#### 455. GALDERA

1. Ziordia: Erantzun guztiak JM zor zaizkio.

3. Bakaiku: Informatzaileak, erantzun egokia eman nahian non-bait, honako esaldiak erabili zituen 'vuela' aditzaren kasuan: *txóri óu e... góratí ibiltzen dok, ba, góyen e... orí, góra ibiltzen dok*.

4. Dorrao: Erdiko zutaberako besterik ere bildu genuen: *eíden ibiltzen da*.

9. Ihabar: Erantzunak MHri zor zaizkio.

11. Egiarreta: *txoriek kabítik bolátu dee*, pluraleko bigarren pertsonarako.

17. Anotz: *txóri oré yoán da, bolátu de* bildu genuen, eskuin aldeko erantzuna dela eta.

20. Inbuluzketa: *egáletan 'volando'* eman zuen ere berriemaileak, zera gaineratuz: *non yo du?*

25. Azparren: *eróri zayó plúma* moduko adibidea jarri zuen erantzuleak.

31. Eaurta: Erantzunak CS-enak dira baina MCEk ere eman zituen bereak: *bolatzen xu / bolátu xu*. Ez dakigu, baina, bi erantzun hauetako aditz laguntzailea, labururrik ego-tean, iragangaitzean ala iragankorrean emanik dagoen. Hots, baldin *xu* horiek balizko 'bolatzen duxu / bolatu duxu' bikotean aditz laguntzailearen laburdurak balira, iragangaitzean genuke aditza, eta, aldiiz, baldin balizko 'bolatzen dixu / bolatu dixu' bikotean dugun aditz laguntzailearenak balira, iragankorrean. Horra hor, beraz, zalantza, inguruko herri desberdinetan bi gisetako emaitzak bildu direla kontuan hartuz.

#### EAEL-EN ARGITARATUAK:

(kasu honetan egin ziren bietatik bi-garrena)

Urdiain: *egan ibil da* / Lizarraga: *airian ibilli da* / Etxarri-Aranatz: *eratu da* / Irañeta: *bolakatu du* / Alli: *egatu da* / Gartzaron: *egatu da* / Autza: *egatu de* / Ziganda: *egatu de* / Eugi: *egatu da* / Mezkritz: *bolatu de* / Auritz: *egaz in du*.



Esparta herriaren ikuspegia; bertako berriemailearen Zubiri etxea aurrez aurre ikusten da - KA2012

**Nº 454 PLUMA - PLUME - FEATHER****Nº 455 VUELA, HA VOLADO - IL VOLE, IL A VOLÉ - IT FLIES, IT FLEW**

<b>1. Ziordia</b>	plúmia	bolatu íten dik	bolátu in dik
<b>2. Altsasu</b>	lúma	bolátu íten dau	bolátu in dáu / txoría iyés in dau
<b>3. Bakaiku</b>	plúmia	góra ibiltzen dok	góra fan dék bólakan
<b>4. Dorrao</b>	plúme	bólatzen da	eídien fán da
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	lúma. lúmä?	érakatú eítten dau	erákatu áu; érakán fán da
<b>6. Arbizu</b>	plúme	áidien zabillék	áidien ibilli duk
<b>7. Uharte-Arakil</b>	plúme	egázkie ítten du	egázkie in dú / egóan joán da
<b>8. Murgindueta</b>	plúme	bolátzen du	bolàtu dú
<b>9. Ihabar</b>	plumé	bolátzen dá	bolátu de
<b>10. Madotz</b>	plumé	ealkató eétten da	ealkató eín da
<b>11. Egiarreta</b>	plume	bolatzen ai da	bolatu da
<b>12. Urritzola</b>	lúme	bolátzen da	bolátu da
<b>13. Larunbe</b>	plúma	txoríe bolátzen da	txóri orí bolátu dá
<b>14. Beorburu</b>	plúme		
<b>15. Usi</b>	plúme	bólan daié	
<b>16. Ziaurritz</b>	lúme	egátzen da	egátu de
<b>17. Anotz</b>	plúme	bolátzen du	bolátu de
<b>18. Olaitz</b>	lúma*		bolátu du
<b>19. Ilurdotz</b>	plúme. lúme	bolátzen da	bolátu de arránoa
<b>20. Inbuluzketa</b>	plúme	asi de bólan	joan da bólan
<b>21. Urniza</b>	lúme	bolátzen da	bolátu de
<b>22. Aurizberri</b>	luma		
<b>23. Espotz</b>	lúma*?		bolátu da
<b>24. Arrieta</b>	plúma	bolátzen du	goratu da
<b>25. Azparren</b>	plúma		fan da... egán*?
<b>26. Garralda</b>	luma		
<b>27. Aria</b>	pluma	bolatzen da	bolatu da
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>	pluma	bolatzén da	bolatú da
<b>29. Garaioa</b>	lúma*	aizátzen dú	aizátu dú
<b>30. Abaurregaina</b>	pluma	bolatzen ei da	bolatu du
<b>31. Eaurta</b>	plúmara	bolátzen du	bolátu du
<b>32. Espartza</b>	plúmara	bolátzen xu	bolátu xu
<b>33. Ezkaroze</b>	plúma	bolatzen xu	bolatu xu
<b>34. Otsagi</b>	plumara, pluma	bolatzen da	bolatu da
<b>35. Uztaroze</b>	plumá	buélatan dún	bólatu dún

**456. GALDERA**

2. Altsasu: Erantzun hau TGri zor zaio.  
 9. Ihabar: Erantzuna MHri zor zaio.  
 13. Larunbe: *píkoan artúta emán du esan zuen berriemaileak.*

**EAEL-EN ARGITARATUAK:**

Eugi: *mokoa* / Auritz: *mokoa*.

Ur ixuriaren hegoaldera egonik, lerro hauetara ekartzen ari garen hamabi herrietako beste hamarrek 'piko' erdal hitz mailegatua era-bili zuten.

**457. GALDERA**

2. Altsasu: TGk eta JMek erantzun bera eman zuten, azken honek *káfi, el ponedor de las gallinas* gaineratuz. Azken hitz hau mu-gagabeko hitzarekin liskarrean sartzen ote den gaude, arazoa, agian, azentueran egon daitekeela.  
 9. Ihabar: Erantzuna MHri zor zaio.  
 13. Larunbe: *kabién dágó* bildu genuen halaber.  
 17. Anotz: *usóak kabién daudé* gaineratu zuen berriemaileak.  
 19. Ilurdotz: *txóri-kafie, el nido del pájaro* bildu genuen orobat.  
 24. Arrieta: Mugagabean ere a-duna: *káfia bateán*, adibidez.  
 25. Azparren: *parátu dú níodoan* bildu genuen.  
 31. Eaurta: MCEk, hitz mailegatu bati eutsiz, bete zuen nolabait CS-ek erantzunik gabe utziriko lekua.  
 35. Uztarrove: *kór badión níodo bát txóritako*.

**458. GALDERA**

2. Altsasu: *arróntha* TGri eta JMi bildu genion; *arráuntza* JMi eta FGri.  
 9. Ihabar: MHk *arrótzia / àrrotziá* eman zigun (243 eta 249. erantzunetan, mugatu gabe, *arrótze*) eta Alek *arrótza*.  
 11. Egizarreta: Informatzaileak, 243 eta 249. erantzunetan, *arrautz, arrautze, arrotze* moduko aldaerak erabili zituen.  
 22. Aurizberri: Berriemaile honixe, guk geuk ere, zera bildu genion halako batean: *Kíkimíki, gúk arrólzte gúti, ditúgunák eré áski, alabé alabó, biér déla Bázko*. - Eta hori, kantatu gabe? galdetu genuen. - *Kantátu gabé*. - Errana bakarrik... - Errána bakarrik. - Erran zazu berriz... - *Kíkimíki, gúk arrólzte gúti, ditúgunák eré áski, alabé alabó, biér déla Bázko*. Aurrekariak ondoren bildu genituen: *Ah! larún-bateán, ioáten giná etxéz etxé, 'Kíkimíki' oi kántatuz, ta... sásaki batzurétan emáten zizkiguté urdá-púskak, txistórra, arrólzeak, ta, geó?* apézain étxean, prestatzén tzituzté Bázko eguneán? artsálde ártan, meréndu on bat ín, àur gúziek, ta, oi, ori? ori ze gùre fésta.  
 24. Arrieta: Berriemaileak, 249. galderari erantzutean ere *arrólzte* eman zuenak, 243 zk. koari erantzutean *arráoltze* erabili zuen.  
 27. Aria: Lan honetako 243 eta 249. erantzunetan *arraultze* agertzen bada ere, oraingo honetan *arroitze* dugu, Aezkoako gainerako herriean, bat ere salbuespenik gabe, bildu bezala.

- Nº 456 PICO - BEC - BEAK**  
**Nº 457 NIDO - NID - NEST**  
**Nº 458 HUEVO - ŒUF - EGG**

<b>1. Ziordia</b>	píkua	káfia*	arrónzta
<b>2. Altsasu</b>	pikúba	káfia	arrónzta. arráuntza
<b>3. Bakaiku</b>	píkóá	káfi(y)á	arrónzará
<b>4. Dorrao</b>	píkua	káfiyá	arrúnzta
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	píkua. píkóá?	kafíya. kafíyä. káfiye	arrónzta. arrúnzta
<b>6. Arbizu</b>	píkua	kafíya	arrúnziá, arrónzta
<b>7. Uharte-Arakil</b>	múturré	káfié	arrúltzié, arrúltze
<b>8. Murgindueta</b>	píkoa	káfié	árrotzeá
<b>9. Ihabar</b>	píkóá	kafíe	árrotziá, arrótze
<b>10. Madotz</b>	píkóá	kabií, kabí	árraultzé
<b>11. Egiarreta</b>	pikoa	kabie, kabi	arrol(t)zia
<b>12. Urritzola</b>	píkua	kábiye	arrólztea
<b>13. Larunbe</b>	píkoa	kábíe	arrólztea
<b>14. Beorburu</b>	píkoa	kabíe	arrótza
<b>15. Usi</b>	píkoa	kabíe	arrótzia
<b>16. Ziaurritz</b>	píkoa	kabíe. kábíe	arrótzia
<b>17. Anotz</b>	píkúe	kabíe	arrótzia, arrótze
<b>18. Olaitz</b>	píkue	káfié*	arrótza
<b>19. Ilurdotz</b>	píkue	kafíe, káfi	arrótza. arrótzia, arrótze
<b>20. Inbuluzketa</b>	píkua	káfia*	arrótzia, arrótze
<b>21. Urniza</b>	píkoa	káfié	arrótza
<b>22. Aurizberri</b>	píkua	kafia	arrottza
<b>23. Espotz</b>	píkoa	nídoa	arrótza, arrótze
<b>24. Arrieta</b>	píkoa	káfia. kafía	arrólztea, arrólzze
<b>25. Azparren</b>		nídoa	arrótza, arrótze
<b>26. Garralda</b>	mokoa, moko	kafia	arroitza, arroitze
<b>27. Aria</b>	pikoa	kafia	arroitza
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>	pikoa	kafia	arroitza
<b>29. Garaioa</b>	píkoa	káfia	arroítza
<b>30. Abaurregaina</b>	pikoa, piko	kafia	arroitza, arroitze
<b>31. Eaurta</b>	píkua, píko bat	nídoa	arrólzze
<b>32. Espartza</b>	píkua	ábía. ábia	arrólzia, arrólzze
<b>33. Ezkaroze</b>	píkua		arrólztea
<b>34. Otsagi</b>	píkua, piku	nidua, nidu	arrottza, arrottz
<b>35. Uztarroze</b>	píkua	nídua, nído	arráultzia, arráultze

**459. GALDERA**

2. Altsasu: Ezkerraldeko erantzunak JMz zor zaizkio; eskuin aldekoa TGri. Azken honetarako, baina, JMek *járrí du* esan zuen.
9. Ihabar: Erantzunak MHk eman zituen. Ali ere, baina, *paátu du* bildu genuen.
10. Madotz: Aurrenik *arraultzé jarré eítten do / arraultzé járre o* bildu genuen.
12. Urritzola: EAEL-en agerturikoa osatzeaz gainera, errepasoak egitean *errúngó du* bildu genuen geroaldirako.
14. Beorburu: Laguntzaz emaniko *errún du* horretaz zera esan zuen berriemaileak: *mi madre habría dicho*, era honetan berez ema- nikoa *paratu* hori *errun* moduko hitz jatorra ordezkatzen ari dela aditzera emanez.
17. Anotz: ólloak erroten *daudé* bildu genuen era berean.
19. Ilurdotz: Eskuin aldeko erantzunak direla eta, berriemaileak honako esaldiak bota zituen: 1) *gúre ólloák errún du arrótze bat*; 2) *ólloak in du, parátu du arrótze bat*. Galduen genuen: 'Errun' edo 'paratu', zein gehiago? - *Los que menos sabían el español decían 'errun du'.*
21. Urniza: Erantzuleak, guk galdeturik, *errun* egokiagoa zekusan *paratu* baino; haatik, azken hau eman zuen aurrenik.
25. Azparren: 'errun' proposatuko genukeela uste izanik ere, gure oharretan *errín\** dakusagu; ustezko aldaera hau, datua ongi hartu baldin baguenen behintzat, ontzat jo daitekeela iruditzen zaigu, inoiz beste lekuren batean, Erronkari aldean adibidez, erabilia izan delako.
27. Aria: Berriemaileak, hasieran, *ezartzen du / ezarri du* eman zuen.
29. Garaioa: Hona zehaztasunak: ...o *eíten du, eíte es hacer; imíitten, imíten dú, poner*.
31. Eaurta: CS-ek *eseri* erabili zuen; MCEk *eseri* eta *errun*, biak.

**EAEL-EN ARGITARATUAK:**

(kasu honetan egin ziren bietatik bigarrena)

Urdiaín: *patu dau / Lizarraga: jarri du / Etxarri-Aranatz: jarri au / Irañeta: paatu du / Alli: jarri du / Gartzaron: jarri du / Autza: paratu du / Ziganda: paatu du / Eugi: egin du / Mezkiritz: paratu du / Auritz: ero in du / Iraberri-Artzibar: paatu (men) dik.*



Zaraitzu ibaia Espartako zubitik - KA2012

**Nº 459 PONE, HA PUESTO (UN HUEVO) - ELLE POND, ELLE A PONDU - IT LAYS, IT LAID (AN EGG)**

<b>1. Ziordia</b>	paátu íten dik	paátu dik
<b>2. Altsasu</b>	pátu íten dau; pátzen dáu	pátu dáu arrónzze bat
<b>3. Bakaiku</b>	paátzen dík arrónzta bat	paátu dáu arrónzta
<b>4. Dorrao</b>	egúnio erróten do	arruntz bét errón do
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	errón eítten dau	errón dau
<b>6. Arbizu</b>	arrúntzia jártzen dik	arrónztea járri dik, járri ik
<b>7. Uharte-Arakil</b>	egúnió arrúltza járri itten dú	arrúltza jár du
<b>8. Murgindueta</b>	árrotzeá errótzen dú; páatzen du	árrotzea érróndu du; pá(r)atu du
<b>9. Ihabar</b>	paátzen du	paatu dú árrotze bat
<b>10. Madotz</b>	erróten do	errón do
<b>11. Egiarreta</b>	jartzen ai da	jarri u; parátu du; erron* du
<b>12. Urritzola</b>	jártzen du; errúten du	járri du; erro ín du
<b>13. Larunbe</b>	arrólzte bat eunían paátzen du	ólloak arrólztea paátu du
<b>14. Beorburu</b>	pa(r)átzen du	paátu du; in du; errún* du
<b>15. Usi</b>	páatzen du	
<b>16. Ziaurritz</b>	parátzen du	parátu du
<b>17. Anotz</b>	erróten du	errón du / in du arrótze bat
<b>18. Olaitz</b>		parátu* du
<b>19. Ilurdotz</b>	errúten du; parátzen du	errún du; parátu du
<b>20. Inbuluzketa</b>	parátzen du	parátu du
<b>21. Urniza</b>	parátzen dú; errúten du	parátu du; errún du
<b>22. Aurizberri</b>	ezartzen du	ezarri du
<b>23. Espotz</b>		errún* du arrótze bat
<b>24. Arrieta</b>	parátzen du	parátu du
<b>25. Azparren</b>		parátu dú; errín* du
<b>26. Garralda</b>	erroiten du; erroiten ai da	erroin du
<b>27. Aria</b>	erroiten du	erroin du
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>	erroitén du > erroiteik / erroitein	erroin du
<b>29. Garaioa</b>	imíten dú arróitze, míten du	imítte dó (?); imín* du
<b>30. Abaurregaina</b>	imintzen du; ei da imintzen	imini du
<b>31. Eaurta</b>	egunóro esértzen xu; errúten xú	eséri xu arrólzze bat
<b>32. Espartza</b>	errúten dixu	errún dixu. errón dixu
<b>33. Ezkaroze</b>	errúten du	errún du
<b>34. Otsagi</b>	esertzen du	eseri du
<b>35. Uztarrove</b>	izártan dién arráultze	ízari dién

**460. GALDERA**

1. Ziordia: Herri nonetatik hurbileko Olaztin ere *búztiná* eman ziguten.
2. Altsasu: TGk emaniko erantzuna da.
9. Ihabar: MHk emanako erantzunak dira.
10. Madotz: Balizko 'buztina' baten aldeko galdera egin genuen, nonbait, berriemaileak emaniko erantzunaren ondoan honako oharra baitakusagu: *búztinié da lúrre góorrá*.
19. Ilurdotz: Berriemailea mintzo: *buztineikin ínin* (sic) *dugú lábe bat ógie itéko*.
20. Inbuluzketa: *lóya* 'barro'.
25. Azparren: ártu *dugú buztina* esan zuen berriemaileak.
27. Aria: *loia* 'barro' ere bai.
31. Eaurta: *búztina, búztin* MCEk eman zuen, eta baita *búztingórri –le llamaban búztingórri*, que parece que tiene otro color– hala nola *lóia* 'el barro'. CS-ek, berriz, búro eman zuen, una clase de tierra entre amarillenta y grisácea, muy compacta; ¡es más burosa!... gaineratuz.
35. Uztaroze: kór badión fangál bat... de barro. Galdetu zitzzion: Eta 'buztun'? - Búztun? es tierra pero... en tiempos se llevaba para blanquear las cocinas, llamábamos búztun, la tierra, para manchar las cocinas.

**EAEL-EN ARGITARATUAK:**

Urdiain: *buztina, buztin* / Etxarri-Aranatz: *buztinié* / Irañeta: *buztinié, buztin* / Alli: *buztina* / Gartzaron: *buztinié* / Autza: *buzdiñe* / Ziganda: *loye* / Eugi: *buztine* / Mezkiritz: *loia* / Auritz: *buztina* / Iraberri-Artzibar: *buztina*.

**461. GALDERA**

2. Altsasu: JMen erantzuna da.
9. Ihabar: MHk emaniko erantzuna da, Murginduetan ere bildu duguna, bestalde. Hau balizko 'tierra arenosa' batekin agian ez baina, beste aldi batean MHk berak eman zigun *árlia-lúrre* hitz konposatuarekin ('arena' ez; 'arado' bai, zehaztu zuen orduan berriemaileak) loturik bide dago. Beraz, oraingo honetan idatzi dugun erantzuna zuhurtiaz eta are zalantzaz hartu beharrekoa da. MH andereak emaniko zehaztapenak, bestalde, 139. galderara eraman ditugu.
12. Urritzola: *uéldeko aréa* 'arena de río' ere bai. Lehenago, baina, 120. galderari erantzuna ematean, *uáldea* erabilia zuen.
19. Ilurdotz: *legarra* hitzaz zalantzak agertu zituen erantzuleak: ¿piedra un poco cascada, rota, para hacer carreteras? esan baitzuen, bere buruari galdetuz bezala.
21. Urniza: *legárra\**, así parece... esan zuen berriemaileak guk egin proposamena ontzat-edo joz.
25. Azparren: ártu *dugú legárra*.
31. Eaurta: MCEk emaniko erantzuna da.

**EAEL-EN ARGITARATUAK:**

Urdiain: *aria, are* / Lizarraga: *aria* / Etxarri-Aranatz: *arié* / Irañeta: *area, are* / Alli: *area; ondarra* / Gartzaron: *area* / Autza: *aria* / Ziganda: *aria* / Eugi: *aria* / Mezkiritz: *area* / Auritz: *area eta legarra* / Iraberri-Artzibar: *area*.

**462. GALDERA**

- Murginduetako eta Larunbeko inkestak egiteko baliatu genuen galde-sortaren orri bat, 462 zk.tik 469ra bitarteko galderak biltzen dituena, ez dugu aurkitzen eta galduzat eman beharrean gaude. Haietan bilduriko informazioa, horrenbestez, koadroetara ezin ekanritz geratu gara.
1. Ziordia: Herri honetatik hurbil, Olaztiko berriemailea honela mintzatu zen: *fátén gindán e... Urbásako mèndirá ekártzera árriy eik, estrésaiyári* ('gazt. 'al trillo') *patzekó...* Eta besterik ere eman zuen: *bárgiá* 'la peña'.
  2. Altsasu: Lehen erantzuna TGri zor zaio, adibide eta guzti: *Urbásako mendí(y)a*. JMek, aldiz, *básoa, báso* 'el monte' eman zuen: *básoko píkua*.
  4. Dorrao: *bargá* 'la peña', bildu genuen orobat.
  5. Etxarri-Aranatz: Étxarrikué, Sán Gregorio, bazán orr e, *báso tártien; úra akáu, bótá edo, árrek eztáu ba...* Herri honetan ere, bestalde, *barga* bildu genuen Dorraon bezala: *órren páre-parién?* or, góyen, *bárga exkín-exkíñean*.
  7. Uharte-Arakil: *góldorrá* 'la cima' gaineratu zuen MAek eta baita jarraikoa ere: *básoá eta bétikiko básoá* 'zelaia' edo. Azken orrazketa egitean JMU galdeko genuelarik, honek *básoa* 'monte' zein 'bosque' izan daitelkeela eta, horrez gainera, 'oihan' hitza ere, gaur egun erabilten ez den arren, herriko toponimoren baten baitan agertzen dela esan zigun, lehenagoko denboretan erabilia izan den seinalea. Honek errazten du, behar bada, hitz hau Ihabar hurbil herrian bildu izana ulertzea.
  9. Ihabar: *oiána, el monte* bildu genion Ali; *oyána* MHri.
  11. Egiarreta: Mikel Elbira inkestagileak *mendi gañeta* bildua zuenez, berriemailea galdekatu genuen horren esanahi zehatzaz. Erantzuna 'lo alto del monte' izan zen.
  17. Anotz: Informatzaileak *oyána* mugagabetzat jotzen bide zuen, zeren, aldi batean *oyánia* emateaz gainera (mugatua, ezbairik gabe), beste batean *oyána artán eróri diré arríek* esan baitzuen.
  18. Olaitz: Informatzaileak galdera errepikatu zuen erantzuna eman aurretik: 'Montaña'... nola zayó ba? esanez. Beste une batean, alabaina, zera esan zuen: *an dagó mendi arrén... mendien, kasko gáñien*.
  19. Ilurdotz: *llordózko...* *bizkér bát, bizkér...* *audiéna, záio...* *nonbrázen dígu Tartalápoa, Tartalápokó mèndie;* *mèndie es sierra* esan zuen berriemaileak, itxuraz 'mendi', zentzu zabalean, 'bizkarra' edo 'tontorra'rekin nahasiz. Beste une batean, berriz, *bizkérre* 'cumbre'tzat jo eta adibidea jarri zuen: *Beltzunegiko Kostáro-bizkérra, Kostárokó bizkérra, zuríuik egón de bier góizean*. Eta besterik ere bildu genuen: *Irrumugetáko bizkérra...* en la misma cordillera, un poco más abajo (Ilurdotz, Beltzunegi eta Egulbatí –Elbeti esaten zuen berak– izeneko herrixken bereizgarri). *Árnalzgibel* eta *Irozmendi* izeneko toponimoak ere eman zituen, azken hau zera izaki: *la cumbre del pueblo de Iroz que mojona con llurdoz*.
  20. Inbuluzketa: Berriemaileak *mèndie* 'monte' dela esan ondoren zera gaineratu zuen: *mendire... a los montes extraños a donde va el ganado*.

21. Urniza: Eta *bizkar* 'colina' edo: *Orreagáko bizkár gartán, aldamòrtzatzeunté, ta... bueltán?* déna áutoan.
23. Espotz: *mendía es monte* baieztu zuen informatzaileak.
24. Arrieta: Aspaldiko istorio baten ingurumarian, azken karlistada-denboran militar batek aitari esana: *bueno, orái, àntxekó... mèndi artán?* kásco artán zér da, úrā? *kustéunzu zerbáit?* Beste une batean, halere, *méndi ardán* bildu genuen.
25. Azparren: *oyána, el monte zehaztu* zuen berriemaileak. ABk, berriz, *Mendibélitz eman zuen* (harkaitz baten izena da), *monte negro gisa itzuliz, eta baita Oianándi ere* (beste toponimo bat, antza) *¿terreno? de monte esanez, zalantzakor edo.*
27. Aria: *Eta peina 'peña': eròri zé zaldí bat, ta... peinátik béra.*
32. Espartza: Hona berriemaileak erantzunarekiko eman zahaztasunak: *bízkar, deízen ginuén gúk uskaráz... òyan góra koyek, bizkarrá; gúk badugu kében finka bat eta dítzen dugú Otsábizkárра, bai,orrá... góora báita.*
35. Uztarroe: Hona berriemailearen adierazpenak: *Bórtia? es lo alto, la muga de Francia y así; se dice: méndian, baya börtian. Así como llamamos a otro Berrobáutxa, la sierra y así, eso es börtia -la muga de Francia, el puerto, börtia-, börtia es el puerto.* Hitz mugatu honen bukaera, baina, modu irekiagoan-edo aditu dugu inoiz: *börtéa, ia-ia bórtea agian.*

**Nº 460 ARCILLA - ARGILE - CLAY****Nº 461 ARENA - SABLE - SAND****Nº 462 MONTAÑA - MONTAGNE - MOUNTAIN**

<b>1. Ziordia</b>	búztina*	ária	mendía
<b>2. Altsasu</b>	buztín	áriá	mendí(y)a / baso
<b>3. Bakaiku</b>	búztiñá	áriá	méndiyá, méndi
<b>4. Dorrao</b>	buztíñá	ária	méndiyá
<b>5. Etxarri-Aranatz</b>	búztiñä	aría	méndiyá. mèndiyé, méndi / báso
<b>6. Arbizu</b>	búztiñá	aría	méndiyá
<b>7. Uharte-Arakil</b>	búztiñé	árié	méndiyé. mèndié
<b>8. Murgindueta</b>	búztiñé	áre-lúrre	
<b>9. Ihabar</b>	bùztiñé, buztín; loié	ària-lurré	oyána. oiána
<b>10. Madotz</b>	ártzillé	áreé	méndíi, méndi
<b>11. Egiarreta</b>	bustiñe	área	montaÑe
<b>12. Urritzola</b>	búztine	aréa	méndie, méndi
<b>13. Larunbe</b>	buztín*		
<b>14. Beorburu</b>	buztíñé	ária	gáñe / méndie
<b>15. Usi</b>		buztíñé?	mendie
<b>16. Ziaurritz</b>	lur gáixtoa	legárra	méndi aundie
<b>17. Anotz</b>	buztíñé		oyánia, oyána
<b>18. Olaitz</b>	buztín	aréna	mendie
<b>19. Ilurdotz</b>	buztín	área; legarra?	mendie. méndie, méndi / bizkér
<b>20. Inbuluzketa</b>	buztíne*	área	mendie
<b>21. Urniza</b>	buztíne	legárra*	méndie / oeána. oiána
<b>22. Aurizberri</b>	buztin	area; legarra	mendia
<b>23. Espotz</b>	bustíne		méndia. mendia
<b>24. Arrieta</b>	buztína	área. aréa	mendía. méndia, méndi / kásco
<b>25. Azparren</b>	buztína	legárra	oyána. oiána
<b>26. Garralda</b>	buztina, buztin	area	mendia, mendi
<b>27. Aria</b>	buztina	area	mendia
<b>28. Hiriberri-Aezkoa</b>		área	mendia
<b>29. Garaioa</b>	buztína	área	méndia
<b>30. Abaurregaina</b>	buztina, buztin	area	mendia, mendi
<b>31. Eaurta</b>	búztina, búztin; búro	aréna	méndi
<b>32. Espartza</b>	buztín*?	áriara, ária	bízkarrà. bízkarra, bízkar
<b>33. Ezkaroze</b>	buztína?	área	méndia?
<b>34. Otsagi</b>	logia, logi	ariara, aria	mendia, mendi
<b>35. Uztarroe</b>	búztun	arená	méndia, méndi; börtia, bórtu

**463. GALDERA**

1. Ziordia: Berriemaileak baso, mendi eta zelaietan atera ohi diren perretxiko batzuen izenak eman zituen, zehaztasun handiegirik gabe, halere: *perrotxiko 'seta'*, *ontua 'hongo'*, *xixa (udaberriko)*, *urriziza edo? xixeta, amarilla (urriko)*, *gibilurdin, aparnéka, ilarra-súlsua eta amaúntua edo gorringua* (azken bi hauak gauza bera, omen). Delako *urriziza* horri Araba aldean *platera* esaten zaiola uste zuen gure lagunak. Olazti auzo-herrian ere, bestalde, *básotu 'selva, bosque'* eman ziguten: *eta básoti etortzéan...*

2. Altsasu: JMek *básotu 'selva'* eman zuen eta TGk ere *básu*, zera gaineratuz: *ekár dau óntuk (guk)*.

9. Ihabar: *oiána* eman zuen Alek *'selva'rako ere eta gauza bera egin zuen* MHk: *óiana, óian*, Uharte-Arakilgoa zen haren aitak basoa erabiliz zuela gaineratuz.

14. Beborburu: Berriemaileak herri honetako eta haren amaren sorterri Uharte-Arakilgo mintzamoldeen arteko desberdintasun bat aipatu zuen: *ta koñátkar erratén dio: "Zér da básoa? (...), ta, klaró, zér da? ze? ízena, oiána edo básoa?"*. Klaró, an, *Uärtén betí... básoa esáten dioté duik gabé ta, èmen beix, béti òianan!* Hona ere, bestalde, hark berak emaniko ondo batzuen izenak: *ónntua 'el hongo'*, *perretxikoak 'setas'*, *súlsua 'rebozuelo'* eta *urrizizek* (lit. 'setas de setiembre'), *béltzak eta zúriek* (hauak ere, *súlsua* bezala, 'cantarello' motakoak).

17. Anotz: Arrieta bilduriko emaitzak aurrean genituela egin genuen galde, *oyán gáitza\**, *oyán aundíe\** eta *oyán úsua\** moduko erantzunak bilduz –hirurak laguntzarekin, baina egokiak diruditzenak, berriemaileak zera gaineratu baitzen: *quiere decir 'el monte es-peso'*. Hiru esaldiotan bestalde, *oyán* dugu oraingoan eta ez 'oyana'. Iku, hau dela eta, 462. erantzunari egin diogun oharra.

19. Ilurdotz: Hona berriemaileak aipatu perretxiko batzuen izenak: 1) *urri-zízek, setas de setiembre, finas; 2) maéz-zízek, setas de mayo, más finas; salen en sitio... recinto propio, en el monte gaineratuz; eta 3) perlánka, en vasco; en castellano no me acuerdo; salen en el monte, sin sitio determinado*. Besterik ere bildu genuen: *ukúrtzen gará artzéko óngoa 'nos agachamos...'*. Galdetu bide genion: Eta 'makurtu'? - Ni makúrtu nítzé; yo me hice travieso... laúneki ibiltzen izan zen erantzuna, hitz honek oso bestelako esan-hia duela agerian utziz.

22. Aurizberri: *oiana = bosque, eta sasia = maleza (impenetrable)* idatzi zuen galdegileak, eta baita berriemaileak *onddoa = hongo, ziza = seta, txultxo eta gibelurdin* moduko hitzak ere.

24. Arrieta: Eta *oián gáitza, oián úsua* 'bosque enorme, selva tupida', antza, azken honek behiala Bidankozeko Mariano Mendigatxa zenak erabili ohi zuen 'usi' hitza oroitazaten duela (José Estornés, *FLV*, 43, 1984).

25. Uztarroe: Aspaldiko denboretan, inguruko mendietan otsoak ba ote zebiltzan galdetu eta, honakoa izan zen erantzuna: *Izában bai, Izában ánitx, bëi bitagó... òbro sélba, ta koriétarik.*

**EAEL-EN ARGITARATUAK:**

Urdain: *baso itxiya / Lizarraga: basua / Etxarri-Aranatz: basue / Alli: basoa / Autza: mendia / Ziganda: oyana; uekoa / Eugi: oyana / Mezkiritz: oyana / Auritz: oiana / Iraberri-Artzibar: oiana*

**464. GALDERA**

1. Ziordia: Herri honetan bildu ez genuen erantzuna Olaztin eman ziguten: *bálsia* 'balsa de nieve'.

2. Altsasu: Bi erantzunak JMi zor zaizkio. Halaber, *úr léku aundíya* eman zuen eta baita *siéts* 'sitio cenagoso' ere. Iku berriemaile honexek eta baita Ziordikoak ere 384. galderari emaniko erantzunak.

5. Etxarri-Aranatz: *bálsa* erdal mailegua MMri bildu genion.

9. Ihabar: MHk *gésalá* eta Alek *balsá*.

11. Egiaurreta: *Góldarazko idoyé* aipatu zuen berriemaileak.

16. Ziaurritz: Erantzuna zuzena izan ez arren, elurrarekin loturiko hitz ustez interesgarria bildu genuen: *láusoa* 'ventisquero'.

22. Aurizberri: Hona galdegileak idatziriko oharrak: *balsa = balsa, eta linga / lingadi = terreno pantanoso*.

24. Arrieta: Berriemailea mintzo: *ausóak, ausóa me parece; un áuso de nieve decíamos ¿a esos ventisqueros? ¿montones de nieve? que tardaban mucho en... un áuso de nieve. - Elur-ausoa? - Elúrr-ausoa, bai.*

31. Eaurta: Errémendiko badína (baltsa txiki bat, omen) aipatu zuen CS-ek, adibide gisa nonbait. MCEk, berriz, *bálsara, bálsa bat* eman zuen.

**465. GALDERA**

2. Altsasu: TGk eta JMek erantzun bera eman zuten.

9. Ihabar: Erantzuna MHrena da.

10. Madotz: Aurrenik *léku bérdiñé* eman ziguten.

11. Egiaurreta: Honako aldaera bildu genuen orobat: *lurrétxabála*.

17. Anotz: *óri zeláie, todo es llano... déna zeláie zen* gaineratu zuen berriemaileak, erantzun osoagoa eman nahiz, nonbait.

18. Olaitz: Berriemaileak, *landa* hitza oinarri harturik, bertsot baten honako pasarte aski desitxuratua eman zuen: *Landak edér, májоak, Oláizko / Babázorro ('habas buenas' gaineratu zuen) Olabéko / Osakain bekain ('el alto' esan zuen) / Zandio eta Beraiz mendi májоa / (eta) Enderiz ezkillek edér... ezkillek eder Enderízko*. Horretaz gainera, Olaibarko haran berean kokaturiko Osabide baserriaz zera esan zuen: *Osoabide (sic), 'paso de lobo', camino para ir a Osakain*.

19. Ilurdotz: *góiti értan báda zelái bet* gaineratu zuen informatzaileak.

20. Inbuluzketa: *beñitiko zeláya* bildu genuen, agian 'zelaye' itxaron bazitekeen ere.

24. Arrieta: Berriemaileak *sario 'pradera'* ere eman zuen, Aezkoan eta Luzaiden *pentze* esaten dela gaineratuz.

27. Aria: *landa 'explanada'*: *landa, erriein parean, kanpo at, landa, esplanada bat da*.

31. Eaurta: *Táintaren ordokía*, alde batetik, eta *Ordókiluxéa* moduko toponimoa, bestetik, aipatu zituen CS-ek, adibide modura, antza.

35. Uztarroe: *llanúra kortan, lláno kòrtan* izan zen erantzuna. - Eta 'ordoki'? galdezu genuen. - *Órdoki? es el hondo, la hondura, órdokia*.

**Nº 463 SELVA - FORêt - FOREST****Nº 464 PANTANO o BALSA DE NIEVE - MARAIS ou BANQUISE - MARSH or ICE-BANK****Nº 465 LLANURA - PLAINE - PLAIN**

<b>1. Ziordia</b>	básua		zélaya*
<b>2. Altsasu</b>	báso zikína	úr lekuá / elúr-balsá	zelái(y)a
<b>3. Bakaiku</b>	béku básoa. béko básua	pántanoá / élurrezko páltseá	zélái(y)á
<b>4. Dorrao</b>	básua	/ élurren bálsa	zeléya
